

2024

Jas ang arritasun memoria

AURKIBIDEA

1. SARRERA: Presidentea eta Zuzendariaren gutunak	2	4.3. Gobernu onarekiko konpromisoa eta etika	18
2. 2024.URTEA AMPON, BEGIRATU BATEAN	4	4.4. Bezzeroekiko konpromisoa	20
3. MISIOA, BISIOA ETA BALIOAK	5	4.4.1. Segurtasuna eta fidagarritasuna	21
4. AMPOREN KONPROMISOAK:	6	4.4.2. Zerbitzua	23
4.1. Pertsonetikiko Konpromisoa:	6	4.4.3. Kalitatea	25
4.1.1. Enpleguaren bilakaera	7	4.4.4. Berrikuntza	26
4.1.2. Enpleguaren kalitatea	8	4.4.5. Jasangarritasuna	29
4.1.3. Eredu kulturala, antolakuntzakoa eta kooperatiboa	8	4.5. Ingurumenarekiko konpromisoa	30
4.1.4. Prestakuntza	9	4.6. Ingurunearekiko eta gure laguntzaileekiko konpromisoa	36
4.1.5. Komunikazioa eta kudeaketako partaidetza	10	4.6.1. Gure komunitatea	37
4.1.6. Berdintasuna eta dibertsitatea	13	4.6.2. Gure hornitzaileak	39
4.1.7. Laneko arriskuen prebentzioa eta lan-osasuna	14	4.6.3. Unibertsitateekiko lankidetzak	40
4.2. Giza eskubideen errespetuarekiko konpromisoa	16	4.6.4. Teknologia-zentro, start-up eta partzuergoekiko lankidetzak	41
		4.6.5. Zenbait elkarteetako kide aktiboak	42
		4.6.6. Erakunde publikoekiko harremana	43
		5. 2024ko MUGARRI NAGUSIAK	44

1. SARRERA

Iban Ferreira, AMPOko Presidentearen gutuna

Atsegin handiz aurkeztu nahi dizuet **2024ko Jasangarritasun Memoria**, hau da, AMPOren bilakaera sendoa islatzen duen eta pertsonekin, bezeroekin, ingurumenarekin, kolaboratzaileekin eta, oro har, gizartearekin dugun konpromiso sendoa jasotzen duen dokumentua. Konpromiso hori bat dator gure kooperatibaren eginkizunarekin: **bidezko giza garapen jasangarrian erreferente izatea**.

Aurtengoa urte bereziki adierazgarria izan da AMPOrentzat. **Gure 60. urteurrena ospatu dugu**, eta mugarri horren harira aurrerapen teknologikoak bultzatu ditugu, gure nazioarteko hazkundea indartu dugu, gure dibertsifikazio-maila handitu dugu eta deskarbonizazioarekin, trantsizio energetikoarekin eta jasangarritasunarekin dugun konpromisoa berretsi dugu.

Aurtengo aitortpenik handienetako bat Gipuzkoako Bazkondeak emandako **2024ko Gipuzkoako Enpresaren saria** izan da. Harrotasun handiz jaso dugun sari horrek aitortzen digu munduko lider izatea balio teknologiko handiko sektore batean, zerbitzuetara bideratutako negozio-eredurantz egin dugun



eraldaketa, trantsizio energetiko globalean betetzen dugun funtsezko eginkizuna, eta ingurunearekin eta pertsonekin dugun konpromisoa.

Gainera, **inoiz lortu gabeko zifrak lortu ditugu, bai fakturazioan, bai jasotako eskaeretan**. Emaiza horiek posible izan dira AMPO osatzen dugun pertsona guztion ahaleginari, dedikazioari eta konpromisoari esker, eta, jakina, gure bezeroen konfiantzari eta gure kolaboratzaileen etengabeko laguntzari esker.

Orain, etorkizunari erabakimenez begiratzeko unea da. Abian dugu gure proiektu kooperatiboa hazten eta finkatzen jarraitzea ahalbidetuko digun 2025erako eta datozen urteetarako plana, betiere **ikuspegi jasangarri batetik helduta: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa**.

Kontseilu Errektorearen izenean, benetan eskerrak eman nahi dizkiet AMPOrekin lotura duten pertsona guztiei, bide hori posible egiteagatik, eta mundu hobea eraikitzeko konpromisoa duen proiektu kooperatibo eta berritzaile honetan parte hartzen jarraitzera animatu nahi zaituztet.

IBAN FERREIRA
Presidente

Ibon Imaz, AMPOko Zuzendari Nagusiaren gutuna

2024. urtea ekitaldi historikoa izan da AMPOrentzat, zalantzarik gabe. Izan ere, inoiz lortu gabeko fakturazio-zifrak lortu ditugu, 258 milioi eurekin eta, aurreko urtearekin alderatuta, % 23ko hazkundearekin, eta 2025 osorako jarduera bermatzen digun eskaera-zorro sendoa lotu dugu. Horrez gain, gure **negozio-eredua kontsolidatu da, gure bezeroen gogobetetzea, balio teknologiko handiko soluzioak, dibertsifikazioa, berrikuntza teknologikoa eta jasangarritasunarekiko konpromiso irmoa ardatz hartuta.**

Emitza horiek AMPO talde osoaren lanari esker izan dira posible, gero eta zorrotzagoa den ingurune global batean egokitzeko eta hazteko gaitasun handia erakutsi baitu. Ahalegin horrek garrantzi handiko mugarri teknikoak lortzea ahalbidetu digu, hala nola Ameriketako Estatu Batuetarako **historiako 60"-ko boladun balbula kriogenikorik handiena diseinatzea eta fabrikatzea**, edo Indiako meatzaritzaren sektorerako eta Txileko subsea arlorako **ISS (Integrated Smart Solutions) integrazio-sistemak garatzea eta hornitzea**. Proiektu horiekin, AMPO balbulen fabrikatzaile hutsa izatetik balbulen eta **fluidoak manipulatzeko sistemen ingeniaritza izatera pasatu da**, eta, horretarako, balio teknologiko handiko balbulez gain, bezeroei balio erantsi handiagoa ematen dieten sistema osoak ere diseinatu eta fabrikatu ditu —elementu elektronikoak, adimendunak eta kontrollekoak dituzten sistemak—.

Berrikuntza, oraindik ere, **zutabe estrategikoa da AMPOrentzat. 2024an trantsizio energetikorako funtsezkoak diren teknologiak garatzen jarraitu dugu**, esaterako hidrogeno-aplikazioetarako eta karbono-atzipenerako balbula espezifikokoak, bola hiperzentrikoko balbulen soluzioak edo zero emisioko DDV kontrol-balbulak. Horri gehitu behar zaio energia eta meatzaritza gisako sektore estrategikoetan indar handiz kokatzen gaituen prozesu eta gaitasun produktibo eta teknologikoen etengabeko hobekuntza.

Bestalde, Energy Intelligence Center (EIC) fundazioa gisako **nazioarteko**



ekimenetan eta lankidetzak-ekosistemetan parte hartzeak eta hidrogenoarekin, karbono-atzipenarekin edo bioerregaiekin lotutako beste proiektu batzuetan modu aktiboan parte hartzeak indartu egiten du trantsizio energetikoan lider izateko dugun bokazioa, teknologiatik, ezagutzatik eta lankidetzatik abiatuta.

Etorkizunari begiratzen diogu, **2025-2027 Plan Estrategikoaren hedapena** jomugan dugula. Izatez, Plan Estrategiko horretan oinarrituta, erdietsitako aurrerapenak sendotu nahi ditugu eta AMPO SERVICE arloa indartu nahi dugu, betiere euskarri hurbilagoa eta espezializatuagoa eskaintzeko eta bikaintasunera, berrikuntzara eta jasangarritasunera bideratutako kultura kooperatiboa bultzatzen jarraitzeko.

Badakigu aurrean ditugun erronkei ikuspegi partekatutik soilik hel dakiekeela. Hori dela eta, funtsezkoa izango da gure pertsonekin, bezeroekin, hornitzaileekin, zentro teknologikoekin, unibertsitateekin, start-upekin, elkarteekin eta erakundeekin elkarlanean jarraitzea. Komunitate zabal eta konprometitu horretatik soilik jarraitu ahal izango dugu sektorean proiektu sozioenpresarial indartsu, berritzaile eta erreferentea eraikitzen.

Zinez eskerrak eman nahi dizkizuet AMPO osatzen duzun pertsona guztiei, baita gure bezero eta kolaboratzaileei ere, beren konfiantza eta konpromisoagatik. Elkarrekin jarraituko dugu industriaren eta gizartearen aurrerabidean lagunduko duten balio erantsi handiko soluzioak eskaintzen

IBON IMAZ

Zuzendari Nagusia

SARRERA · AMPO

2. 2024. URTEA AMPON, BEGIRATU BATEAN:



• FAKTURAZIOA: 258.000.000€
• SALMENTAK:




FUNDIZIOKO:
2.711 Tona



AMPO SERVICE:
42 Asistentzia



BAIBULAK sektoreka:



- GNL
- Finketa, petrokimika eta energia
- Meatzaritza
- Gas processing
- Upstream
- Gainerakoa



Esportazioak: %94



60 Herrialdeetan gaude



Produktu garapen eta ikerketa lerroen kopurua: 14



Berrikuntzaren intentsitatea: %2tik gora

EQUIPO



Kooperatibistak: %84

- Idiazabal: 506 pertsona Plantillaren %15 emakumeak dira
- India: 365 pertsona Plantillaren %2 emakumeak dira
- Arabia Saudi: 81 pertsona Plantillaren %9 emakumeak dira
- Kazakhstan: 10 pertsona Plantillaren %10 emakumeak dira



Homologatutako hornitzaile kopurua: 1.000 hornitzaile



100 Km-ko erradioan erositako €-ak: 77M€



PROIEKTU SOZIALAK:
701.000€, 157 proiektu sozialetara bideratuta

KONTSUMOAK:



Elektrizitatea
17.622.228 kwh



Gas Naturala
19.928.067 kwh



Ura
28.906m³

3. MISIOA, BISIOA ETA BALIOAK

MISIOA

AMPO **pertsonetan oinarritutako proiektu bat** da, non taldean lan eginez eta komunikazioan oinarrituz, pertsona, bezero eta kanpo laguntzaileen asebetetzea helburu duena eta honez gain, **mozkinak lortuz printzipio kooperatiboen marko baten pean, pertsonen garapena eta bidezko garapen iraunkorra bilatzen duena.**



BISIOA

Fundizioa, balbulagintza eta beste jarduera batzuk merkatu globalean eskaintzea, bezeroen beharrak asetzeko soluzioak emanez.

BALIOAK ETA KONPROMISOAK

- **Bezeroen asebetetzea**, etorkizuneko bermea izanik, lehentasun nagusia da.
- **Pertsonen konpetentzia profesional mailarik altuena** lortu, sormena ahalbideratu eta sustatuz eta etengabe berritzailea den proiektu bateko protagonistak bihurtuz.
- **Talde lana**, zeinaren oinarrian askatasuna, erantzukizuna eta lidergotza integratzen diren eta kantitate zein kalitatearekin betetzeko konpromisoan oinarrituta, efizientzia lortuz elkarbizitzan diharduten.

- **Komunikazioa, informazioa eta gardentasuna**, ezagutzak, esperientziak eta trebetasunak elkarbanatzeko, bai eta ardurak onartu eta gauzatu eta havei lotuta egon daitezkeen arriskuak nork bere gain hartzeko.
- **Hornitzaile, bezero eta gizartearekin gure proiektua elkarbanatzea**, ilusioz beteriko eta oparoa den etorkizun bisio batekin.
- **Kalitate, zerbitzu, koste eta segurtasun eta lan osasunarekin konpromisoa**, honako hauek aktibitatearen giltzarri nagusi bezala ulertuz. Guzti hau bikaintasuna lortzeko helburuarekin.

Balore hauek AMPOk parte hartzen duen proiektu edota aktibitate oro konprometitzen ditu.



4. AMPOREN KONPROMISOAK

4.1. PERTSONEKIKO KONPROMISOA



AMPOko pertsonen ongizatea, gogobetetzea eta garapen profesionala da gure konpainiaren lehentasun nagusietako bat. Pertsonak dira gure misio, gure balio, gure estrategia eta gure kudeaketaren ardatza, eta, horregatik, geure burua pertsonak oinarri dituen proiektutzat hartzen dugu.



Gure lantalde guztiek beren burua kudeatzen dute, eta ondo ezagutu eta bere egiten dituzte AMPOren helburuak eta estrategia. Helburu horiek kooperatibaren Batzar Orokorrean hitzartzen dira.

Gaur egun, **AMPO lantaldea 1.000 pertsona inguruk osatzen dugu, eta horien barruan daude Idiazabalgo zein India, Saudi Arabia eta Kazakhstango gure langileak eta gure sare komertzial zabala.** Bezerao gogobetetzea da pertsona guztien lehentasun gorena, haien etorkizunaren bermea baita. Beraz, kalitatearekin, zerbitzuarekin, kostuarekin eta laneko segurtasun eta osasunarekin konprometituta daude, bikaintasunera bidean. Aldi berean, **AMPO guztiz konprometituta dago bere pertsonen kompetentzia profesional gorena lortzearekin eta haien sormena onartu eta sustatzearekin;** pertsonak egiten ditu proiektu etengabe berritzailearen protagonista. AMPOk, halaber, bere proiektua partekatu nahi du, eta, horretarako, komunikazioa, informazioa, gardentasuna eta abar sustatzen ditu.

Horren erakusgarri, ondoren, gure antolakuntza-ereduarekin, enplegua eta pertsonak kudeatzeko gure politikarekin, komunikazio-ereduarekin, formakuntza-ereduarekin eta abar lotutako askotariko alderdiak aurkituko dituzue.

ENPLEGUAREN BILAKAERA

AMPOren 2024ko taldea 1.000 pertsona inguruk osatzen zuten; 506 pertsona Idiazabalgo lantegian, 365 pertsona AMPO INDIako lantegian, 81 pertsona Saudi Arabiako lantegian, 10 pertsona Kazakhstango lantegian eta gainerakoak munduan zehar banatutako merkataritza-ordezkaritzetan. 2024an, 30 ikasle inguru izan ditugu proiektuak garatzen edo lana eta ikasketak txandakatzen.

AMPOko lantaldearen profilari dagokionez, datu hauek nabarmendu ditzakegu:

- Gure produktu eta prozesuen goi-mailako teknologiaren ondorioz, taldeko pertsonen % 44k **ingeniaritza, berrikuntza, prozesu, salmenta, erosketa eta antzeko zerbitzuetan lan egiten dute.**
- **Langileen % 9 emakumeak dira, eta % 91 gizonak.** Idiazabalen, emakumeen tasa % 15koa da.
- **Adinez banakatuta:**
 - 30 urtetik beherakoak langileen % 23 dira.
 - Adin-talderik handiena 30 eta 50 urte arteko pertsonak osatzen dute, % 64 baitira.
 - 50 urtetik gorakoak langileen % 13 dira.



ENPLEGUAREN KALITATEA

2024. urtearen amaieran **Idiazabalgo langileen % 84 bazkide kooperatibistak ziren.** Datu horrek agerian uzten du AMPOk pertsonekin duen konpromisoa.

Pertsonen errotazioari erreparatuta, nabarmendu behar da **txandakatze-tasak oso apalak direla AMPOn.** Espainiako zein Indiako batez bestekoaren azpitik daude —gure pertsonen gogobetetzearen erakusgarri—.

AMPO INDIARI dagokionez, nabarmendu behar da, gainera, Coimbatoreko gure langileek beren ingurune lan-baldintzak baino lan-baldintza hobek dituztela eta, beraz, enpleguaren kalitatea oso handia dela.



EREDU KULTURALA, ANTOLAKUNTZAKOA ETA KOOPERATIBOA

2003. urteaz geroztik, AMPOk pertsonak eta konpromisoa ardatz dituen **antolaketa- eta kudeaketa-estilo horizontala du.** Horrela, erakunde bikaina izan nahi dugu, pertenezia-zentzua duena eta gure pertsonak, bezeroak, hornitzaileak, kolaboratzaileak eta abar gogobeteta dituen.

"Commitment made of Steel" da gure balio-proposamen nagusia. Arau horrek ezartzen du gure izateko modua eta bezeroekin, kolaboratzaileekin, ingurunearekin eta planetarekin erlazioatzeko modua, baita AMPOk pertsonen artean harremanak izateko modua ere. "AMPOn konpromisoen dekalogoia" deiturikoa oinarritutako konpromisoa.

Bestetik, kooperatiba-eredua sustatzeko, 2024an, kooperatibismoari buruzko prestakuntza-saio interesgarriak egin ziren. Jardunaldi horietan, kooperatibetako zenbait alderdi aztertu ziren: araudiak, oinarritzko funtzionamendua, kooperatiba-bazkideen eskubideak eta betebeharrak, eta abar. Alderdi teorikoez gain, benetan interesgarria izan zen gure pertsonen kooperatibismoaren inguruan dituzten ideiak partekatzea, zenbait mahai-ingurutan.

THE AMPO WAY





PRESTAKUNTZA

AMPOn, jakitun gara prestakuntza benetan garrantzitsua dela erakundearen etengabeko hobekuntzarako eta gure produktu eta zerbitzuen kalitaterako, baita erakundeak urtero egiten dituen apustueta egokitzeko eta pertsonen balio-aniztasun maila areagotu eta, hartara, malguago izateko. Izan ere, AMPOk ahalegin handia egiten du pertsonen prestakuntza-jardueran.

Horretarako, ezagutzen, gaitasunen eta jarrerren garapenarekin zerikusia duen guztia kontuan hartzen duen bi urteko **prestakuntza-plana** dugu.

Ondoren, **2024ko Prestakuntza Planari** dagozkion datuak ikus ditzakezu:

INBERTSIOA

193.927,34€

FORMAKUNTZA TALDEAK

109

INBERTITUTAKO ORDUAK

5.027,7 h

PARTEHARTZAILE KOPURUA

569

FORMATUTAKO PERTSONA KOPURUA

293

FORMATURIKO PERTSONA BAKOITZEKO ORDUAK


17,16h

Hauexek izan dira prestakuntza-ekintzak, banakatuta:




Nabarmendu behar da, halaber, **pertsonen joan-etorria etengabea dela Idiazabal, India, Arabia eta Kazakhstango instalazioen artean**, lankideak askotariko

PARTEHARTZAILE KOPURUA



FORMAKUNTZA SAIO KOPURUA



gaietan presta daitezzen, adibidez, balbula-muntaketan, kalitatean, pinturan, bidalketan, ingeniaritzan, eta abar.



KOMUNIKAZIOA ETA KUDEAKETAKO PARTAIDETZA

Komunikazioa faktore estrategikoa da AMPOrentzat, ezinbesteko bitartekoa baita estrategia korporatiboari buruzko informazio osoa AMPOko pertsonekin eta beste interes-talde batzuekin definitu eta partekatzeko, adibidez: bezeroak, hornitzaileak, gizarte, kolaboratzaileak, eta abar.

Ondorioz, bi talde ditugu gaur egun: batetik, barne-komunikazioko lantalde bat eta, bestetik, kanpo-komunikazioko lantalde bat.

Kanpo-komunikazioko lantaldearen helburu nagusia da urteko komunikazio-plana eta estrategia zehaztea. Helburua da AMPO marka nabarmenaraztea, hala merkatuan nola gizartean, gure egungo posizioa mantenduta eta bikaintasuna zein konpromisoa gisako balioak transmitituta.

Nolanahi ere, barne-komunikazioko lantaldearen helburua bestelakoa da, AMPOko pertsonak baitira hartzaileak. Lantalde horrek barne-komunikazioa arina izatea eta kooperatibaren premiekin bat etortzea bermatzen du.

Ekimen berri horiez gain, nabarmendu behar da antolakuntzak askotariko topaguneak eta barne-komunikazioko bitartekoak ere badituela, barne-komunikazioa ezin hobea izan dadin:





KOMUNIKAZIORAKO TOPAGUNEAK:

→ Batzar nagusia

Erakundearen organo gorena da, antolakundearen helburua adierazten den lekua, eta Kooperatibako bazkide-langileak dira bertako ordezkariak, AMPOren Estatutu sozialek arautu bezala. Bazkide guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte (pertsona bat boto bat), eta haien konpetentziako gaietan hartzen dituzte erabakiak, adibidez Kontseilu Errektore, Zaintza Batzorde eta Kontseilu sozialeko kideak izendatzea; kontuak eta balantzeak onartzea, soberakinak banatzea, gizarte-kudeaketa, eta abar. Bertan erabakitzen dira, halaber, Barne Araubiderako Erregelamenduen eta Sozietatearen Estatutuen aldaketak, eta abar.

Ohiko Batzar Nagusia maiatzan egiten da, eta bertan aurkeztu eta onartzen dira Urteko Kontuak. **Abenduan, berriz, beste Ezohiko Batzar bat egiten da**, hurrengo urterako Ideia eta Helburuak aurkeztu eta onar daitezen, hau da, Kudeaketa Plana onar dadin.

Bestetik, Batzar Nagusiak baino egun batzuk lehenago, langile guztientzat irekita dauden **bilera informatiboak** antolatzen dira, Batzarretako edukiak xehetasunez azal daitezen eta, hartara, taldeko guztien iruzkinak jaso daitezen.

→ Hileko bilkurak:

Kooperatibaren Zuzendaritza Batzordeak eta Kontseilu Errektoreak hileroko egiten dituzten ekintzak, haiek hartzen dituzten erabakiak eta abar kolektibo osoari hel dakizkion; **organoak hileroko biltzen dira, aste berdinean**. Bilkura horietan, xehetasunez aztertzen dira hileko emaitzen kontuak eta horiek urteko "Ideia eta Helburuen" (Kudeaketa Planaren) arloan izan duten bilakaera; horrez gain, beharrezko inbertsioak baloratzen dira, ekintza berriak abian jartzen dira, eta abar.

Kontseilu Errektorearen bilkuraren ondoren, arratsalde horretan bertan, **Kontseilu Sozialak** ere bilkura egin ohi du. Bertan azaltzen dituzte Koordinatzaile Nagusiak eta Kontseilu Errektoreko presidentek hilabete horretan hartutako erabakiak, egindako ekintzak, hileko

emaitza-kontua, eta abar. Kontseilu Sozialak Kontseilu Errektorearen, Koordinazioaren eta bazkideen arteko zubi-lana egiten du bazkide langileen lanari lotutako gaien inguruan, informazio, aholkularitza, kontsulta eta iradokizunen bitartez. Kontseilu Soziala kooperatibako askotariko arloetako ordezkariak osatzen dute eta, beraz, kooperatibista guztiak daude bertan ordezkaturak.

Kontseilu Sozialean aztertutako gaiak pertsona guztiei helarazten zaizkie **"arlo edo lantalde bakoitzean egiten diren Bilkuratxoetan"**. Lantalde bakoitzak bere gizarte-ordezkariek aukeratzeko dituzte eta, haien bitartez, Kontseilu Sozialean landutako gaien berri jasotzen dute. Beraz, ordezkariak Bilkuratxoetako kezkak eta iradokizunak Kontseilu Sozialera helarazten dituzte, hark aztertu eta eztabaida ditzan. Bilkuratxoak topagune benetan garrantzitsuak dira erakunde- eta enpresa-testuingurutik informazioa eman eta jasotzeko.

→ Lantaldeko bilkurak:

Lantalde gehienek egunero, astero eta abar egiten dituzte bilkurak, haien premien arabera.

KOMUNIKAZIORAKO KANALAK:

→ Jakintzazu:

Asteko informazio-buletina da, hirueleduna (euskara, gaztelania eta ingelesa), eta zortzi bat orrialde izaten ditu. Buletin hori 2010ean hasi zen argitaratzen, eta kooperatibako pertsona guztiei helarazi ohi zaie posta elektronikoko bidez. Aldizkari horretan gaurkotasuneko artikulatuak eta AMPOri buruzko berriak argitaratzen dira, eta bertan idazten dute Koordinatzaile Nagusiak, Kontseilu Errektoreak eta kooperatibako lantalde guztiek (ESC, ingeniariak, kalitatea, India, AMPO Service, komunikazioa, berrikuntza, produkzioa, erosketak, informatika, prebentzioa eta ingurumena, pertsonal-lantaldea, eta abar). Asteko bisita-agenda eta urtebetetzeak ere argitaratzen dira.

→ Iragarki-taulak eta pantailak:

Askotariko abisua argitaratzeko, **iragarki-taulak erabiltzen dira, baita enpresako askotariko puntuetan jarritako pantailak** ere. Horietan, presazko komunikazioak, orotariko informazio-oharrak, bisitak, pertsonal-lantaldearen idazkiak, enpresako zerbitzuen ordutegiak, asteko eta hileko jarduerari buruzko informazioa eta abar jartzen dira.

→ AMPO KONEKT intraneta:

AMPOk, 2022tik, AMPO KONEKT du, kooperatibaren intraneta. Intranet horretan askotariko informazioa eta dokumentazioa aurki daiteke (informazio orokorra, segurtasuna eta prebentzioa, kalitatea, ingurumena...), baita albisteak, buletinak eta abar ere, pertsonak berrikuntza guztien berri izan dezaten. Intranetak,

TEAMSen integratuta egoteaz gain, aplikazio mugikorra ere badu, erabateko irisgarritasuna berma dadin. AMPOko pertsona guztiek dute TEAMS aplikazioa, bai zuzeneko langileek, bai zerbitzuetako pertsonak.

→ Posta elektronikoa eta telefonoak:

2024an **posta korporatibo propioak instalatu zitzaizkien ordura arte tresna hori ez zuten produkzio alorreko pertsona guztiei**. Horrenbestez, 2024tik aurrera, AMPOko langile guztiek dute berezko posta elektronikoko korporatibo baterako sarbidea. Horrez gain, pertsona guztiek dute beti telefonoa eskura.





BERDINTASUNA ETA DIBERTSITATEA

AMPOk Emakunderen “Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakunde” aitortza du, Berdintasun Batzordea eta Berdintasun Plana baititu. Batzorde hori 12 pertsonak osatzen dute gaur egun, 8 emakumek eta 4 gizonek.

Plan horren helburua da berdintasun-printzipioa babestea eta kooperatiban aplikatzea, langile berriak kontratatzean aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzea, pertsona guztiei ekonomia eta garapen profesionalerako aukera berberak bermatzea berdintasunezko adierazpen-formen erabilera sustatzea

—hala ahozkoan, nola idatzizkoan—, familia-kontziliazioa sustatzea, eta sexu-jazarpen eta -diskriminazio kasuak konpontzea.

2024an, kooperatiban indarrean jarraitu zuen **2020-2024 Berdintasun Plana**, eta hainbat ekimen abiarazi zituen.

Bestalde, nabarmentzekoa da Indian berdintasunaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina egiten ari direla, han ere gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean aurrera egin dadin.



Azkenik, AMPOn berdintasun-printzipioa eta irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua sustatzeko helburua dugu; horregatik, **gure instalazioak eta lanpostuak desgaitasunen bat duten pertsonentzat egokitu daude.**

AMPOrentzat, aukera-berdintasuna, diskriminazio-eza eta dibertsitatearen errespetua ezinbesteko kontzeptuak dira.





LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA LAN-OSASUNA

AMPOn konpromisoa sendoa dugu arriskuen prebentzioarekin, **prebentzioaren kudeaketa-sistemaren bitartez garatzen dena.**

Laneko Segurtasuna eta Osasuna antolakundearen kudeaketa-sistema orokorrean integratuta euste aldera —antolakundearen jardueren osotasunean zein haren maila guztietan—, **segurtasun integratuaren kontzeptuan** oinarritutako antolakuntza-sistema hartu da. Izatez, sistema horren ezaugarri nagusia da prebentzioa erantzukizunaren bidez gauzatzea antolakundeko arlo guztietan.

Prebentzio-zerbitzuaren egiturarako, berriaz, Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuaren modalitatea hartu genuen.



Istripuak eragozteko asmoz, arriskuen ebaluazioan oinarritzen diren jarduketa-prozedurak garatzen dira, eta lan-baldintza seguruetan lan egiteko neurriak ezartzen dira. **Prozedurak etengabe aplikatzen dira, eta etengabe jakinarazten dira arrisku potentzialak eta gertatzen diren gorabeherak, baita istripuak ere;** horrela, helburua lortzera bideratutako ekintzei hel dakieke.

2024. urteko istripu-datuak laburbiltzen dituen taula erantsi da —istripuen % 95,6 gizonen izan zituzten eta % 4,4 emakumeek—:

ISTRIPU DATUAK

Intzidentzia Tasa 21,63

Maiztasun Tasa 12,56

Larritasun Tasa 0,53

Horrez gain, 2024an instalazioen arloan garatu ziren proiektu guztietan segurtasuna aintzat hartzen eta prebentzio-alderdiak aplikatzen jarraitu zen.

Bestalde, segurtasunaren arloko urtez urteko prestakuntza-plana ere badugu. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko zenbait prestakuntza-saio antolatzen dira urte osoan zehar, segurtasunarekin dugun konpromiso irmoaren lekuko. Prestakuntza horiek OSARTENen laguntzarekin antolatzen dira (gure prebentzio-zerbitzu mankomunatua), eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko eduki orokorrak zein zehatzak lantzen dituzte, pertsona bakoitzaren lanpostuaren arabera.

Prestakuntza-saio horien bidez, pertsona guztien segurtasun- eta osasun-baldintzak eta -jokaerak etengabe hobetzea dugu helburu. Guk oso argi dugu: prebentzioa gu guztion erantzukizuna da eta, horretarako, prestakuntza dugu giltzarri.

LAN-OSASUNA

AMPOk osasun- eta fisioterapia-zerbitzu propioa du, eta kooperatibako langile guztiek balia dezakete, bai bazkideek, bai besteren konturako langileek.

Osasun Zerbitzua langile guztien osasuna zaintzeaz arduratzen da, pertsonen eta haien lan-baldintzen arteko elkarrekintza aztertu eta analizatze aldera eta, hartara, osasunean eragina izan dezaketen gaixotasunak garaiz detektatze aldera; horrela, lan-zereginetan aritzeko zer-nolako mugak dituzten argitu ahal izango da —langile bereziki sentikortzat jotzen dira—. Osasuna zaintzeko zeregina betetzera begira, hasierako mediku-azterketak egiten dira, baita aldizkako azterketak eta luzaroan kanpoan egon ondorengo azterketak ere (eszedentzia, aldi baterako ezintasuna, amatasun- edo aitatasun-baimenak, eta abar); horretarako, osasuna zaintzeko protokoloak eta aldeak aurretik zehaztutako proba espezifikoak jarraitzen zaie.

Gainera, nabarmendu behar da **2024an osasuna sustatzeko hainbat programa egin zirela**, hauek aipa daitezke:



NEGUAN GRIPEAREN KONTRAKO TXERTO-KANPAINA:

Urrian, osasun-zerbitzuak kanpaina aske eta doakoa antolatu zuen gripearen kontrako txertoa jartzeko.

TALDEAREN ETA NORBANAKOEN OSASUN-EGOERAREN NEURKETA:

AMPOko zerbitzu medikoak etengabe zehazten eta monitorizatzen du pertsonen osasun kolektiboaren eta indibidualaren egoera, eta lanpostua egokitzen du, baldin eta zereginak egiteko bateraezintasunik edo mugarik badago.

ODOLA NORK BERE GOGOZ DOHAINTZAN EMATEKO PARTE-HARTZE KOLEKTIBOA:


Gipuzkoan, 140 odol-dohaintza behar dira egunero lurraldeko hemoterapia-premiei aurre egingo bazaie. Pertsona guztiek dute, behar dutenean, transfusio bat jasotzeko eskubidea, baina ezinbestekoa da norbanakoaren eskubide horri elkartasun komunitarioko keinuen bidez eustea. Ondorioz, AMPOk odola emateko bi jardunaldi antolatzen ditu urtero bere lantokian, eta bertan pertsona boluntarioek parte hartu ohi dute. 2024an, martxoan eta azaroan egin ziren odola-emateak.

Bukatzeko, merezimenduz nabarmendu behar da AMPOren **Fisioterapia Zerbitzua**. Zerbitzua sendotu egin da, eta egunero 8 orduko zerbitzua eskaintzen die langileei bere instalazioetan. Horrenbestez, askotariko minen sintomak arintzeko terapia eskaintzen du, terapia-ariketen bidez —bero, hotz, argi, eskuzko teknika eta abar—.



4. AMPOREN KONPROMISOAK

4.2. GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUAREKIKO KONPROMISOA



AMPOk aitortu egiten ditu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oinarrizko printzipioak, 1948ko Nazio Batuen definizioaren arabera, eta gure jokatzeko eraren erreferentziazko esparrua dira.



Erakundearen sozietatearen estatutuetako 1. artikuluan, definitzen da “AMPO, S. COOP. **pertsonetan oinarritutako proiektua**” dela, bilatzen duena lantaldearen lanaren eta komunikazioaren indarrez **pertsonak berak, bezeroak eta kanpo-kolaboratzaileak gogobetetzea**, haiek hazi eta garatzea, eta **enplegu berria sortzea** balioko duten irabaziak lortzea, guztia ere kooperatiben eta lankidetzaren, elkartasunaren,

berdintasunaren eta justizia eta partaidetzaren printzipioen arabera, baita **gizarte-ingurune, ingurumen eta giza garapen jasangarriaren arabera ere**.

AMPOn araudian agertzen diren elementu guztiak herrialde bakoitzean indarrean diren araudi eta legediak errespetatuz ezarri dira, eta **Lanaren Nazioarteko**

Erakundearen hitzarmenak sustatuz eta betez: lanerako gutxieneko adina, elkartzeko askatasuna, negoziazio kolektiborako eskubidea, diskriminazio-eza, etab.

Halaber, nabarmendu behar da ez dela inongo salaketarik izan AMPOn instalazioetan giza eskubideak urratzeagatik.

4. AMPOREN KONPROMISOAK

4.3. GOBERNU ONAREKIKO KONPROMISOA ETA ETIKA



2021. urteaz geroztik, AMPOk "Compliance" sistema ezarri du, hau da, enpresak aurre egin behar dien jardun- eta lege-arriskuak identifikatu eta sailkatzeko eta prebentzio, kudeaketa, kontrol eta erreakzioko mekanismoak ezartzeko hartutako prozedura eta jardunbide egokien multzoa.



4. AMPOREN KONPROMISOAK

4.4. BEZEROEKIKO KONPROMISOA



AMPOnen helburu nagusia da bere bezeroak fidelizatzea, eta, horretarako, etengabe haien premietara egokitzea eta balioa ematen dieten produktuak, zerbitzuak eta soluzioak eskaintzea. Balioa **fidagarritasunean, segurtasunean, zerbitzuan, kalitatean, berrikuntzan eta jasagarritasunean**.

SEGURTASUNA ETA FIDAGARRITASUNA

AMPOn, oso serio hartzen dugu gure soluzioen segurtasunarekin eta fidagarritasunarekin dugun konpromisoa, **zorrotasunez betetzen ditugu, mundu osoan, ingurumen-arau guztiak eta segurtasun publikoari buruzko araudiak.**

Galdaketako osagai eta balbula kopuru handia instalatu ondoren, eta energia, kimika, petrokimika, meatzaritza eta bestelako zenbait lantegitan lan egin ostean, esan dezakegu **AMPOren soluzioek fidagarritasun ezin hobea dutela.** Horretarako, enpresak **etengabe inbertitzen du berrikuntzan eta garapen teknologikoetan**, eta etengabe asmatzen ditu hobekuntzak segurtasunaren eta soluzioen fidagarritasunaren esparruan. Eskaintzen ditugun soluzioetako batzuk dira urruneko kontrol-prozesu berriak, ISS (Integrated Smart Solutions) soluzio berriak, mantentze prebentiborako ekipo berriak eta kontrol-sistema berriak. Eta guztiek dituzte, gainera, segurtasunaren arloko ziurtagiririk zorrotzenak, hala nola





Exida ziurtagiriak eta SIL arauak. Segurtasun-integritateko arauak (SIL), hain zuzen, sistemetan instalatu behar diren segurtasun-funtzioen integritate-eskakizunak zehazten dituzte.

Balbula eta soluzio horiek, gainera, diseinu sendoa dute, teknologia aurreratuak aplikatuta, hala ingeniartzaren aldetik nola materialen aldetik:

- **Ingeniaritza.** Simulazio mekanikoak eta egiturazkoak, simulazio termikoak, simulazio fluidodinamikoak, domeinu desberdinen interakzioa ebaluatzeko simulazio multifisikoak, maniobra-pareen korrelazioa, P&ID analisia, Cv kalkuluak, kalkulu sismikoak, eta abar.
- **Materialak:** AMPOk bere fundizioa du, eta zerbitzu bikaina eta kalitate goreneko osagaiak eskaintzen dizkie hala bere balbula-dibisioari nola beste balbulagile eta industriei, fabrikazio-prozesuan integritasunez lan eginik. Gainera, gure diseinuak egokitzen ditugu gure balbuletako osagaien bizi-denbora hobetzeko; soluzio teknologikoak eta gainazaleko tratamenduak garatzen ditugu, higadura goiztiarra eta osagaien arteko marruskadura minimizatzen; proiektu bakoitzerako ad-hoc materialak eta estaldurak hautatzen ditugu; eta abar.

Eta AMPOren soluzio fidagarriek segurtasun gorena bermatu behar dute bezeroen instalakuntzetan. Hori dela eta, AMPOren **AMPO SERVICE dibisioak albait denbora**



laburrenean bermatzen du laguntza teknikoa munduko edozein bazterretan eta proiektuaren edozein fasetan, eskarmentu handiko profesional-lantalde zabala baitu.

Horretarako, balbulen erosketan, instalazioan, funtzionamenduan eta mantentze-lanean inplikaturako lantalde guztiekin lan egiten dugu lankidetzan estuan. Balbulei buruzko gure ezagutza helarazi nahi dugu eta, ondorioz, plantetako gure ekipamenduen segurtasuna, errendimendua eta mantentze-lana bermatu.

AMPO SERVICEk, gainera, mantentze prebentiboko eta prediktiboko zerbitzu integrala eskaintzen du, balbulek errendimendu egokia eta ekipamenduek behar bezalako funtzionamendua izango dutela berma dadin. Mantentze prebentiboaren arloan, mantentze- eta prestakuntza-planak sortzeko zerbitzua eskaintzen du, lantegiak/unitateak ustekabeen gelditzea saihesten

aldera. Mantentze prediktiboko tresnak, AMPO SERVICEren esperientzia eta bezeroen datu errealak erabilia, konpainiak honako alderdi hauek barne hartuko dituen plan egokia sor dezake: balbula bakoitzaren mantentze-lanak, ordezko piezen/balbullen inbentario-ratioak, balbulen errotazio-programak eta abar. Bestalde, mantentze-lan prediktiboari erreparatuta, AMPO SERVICEk AMPO RCM izeneko balbularen egoera monitorizatzen zerbitzua eskaintzen du. Munduko edozein lekutan instalaturako balbulak monitoriza ditzakeen sistema berritzailea da, bereziki balbularen posizioa monitorizatzen duena. Sistemak plantan instalaturako balbuletan gerta daitezkeen akatsak detektatzen ditu, ustekabeko geldialdiak saihestu daitezke. Sistemak balbulak beti konektatuta daudela bermatzen du, eta, horri esker, balbulen egoera monitoriza eta azter dezakegu.



ZERBITZUA

AMPOn, zerbitzu-filosofia gure soluzioen diseinuz, fabrikazioaz eta mantentze-lanez haratago doa. Bezeroaren premia guztiei erabateko estaldura eman nahi diegu, gure ebazpen-ahalmen osoa eta gure konpromiso irmoa eskainita.

AMPOren gaitasun teknologikoari esker, bezeroek **guztiz neurritik egindako soluzioak** eskuratzeko aukera dute, baita aplikazio-baldintza muturren artean ere. Hartara, AMPOk espezialistak, bezeroaren laguntzarekin, edozein proiektutan murgiltzen dira, beharrezkoak diren betekizunak argitze aldera. Ematen dugun arreta, gainera, hurbilekoa eta pertsonalizatua da, gure erreferentziazko balioa bereizgarria.

Arreta hori eskaera egin aurretik hasten da, betekizun guztiak zorroztasunez aztertuz eta beti soluzio onena proposatuz. Balbulak produzitzeko prozesuan, bestalde, bezeroekin izaten den komunikazioa ere etengabea da, eta balbulen entregara arte laguntza eta zerbitzu integrala eskaintzen zaie.

- **Horretarako, lantalde bat dugu, Project Manager deiturikoei osatua**, eta horiek bermatzen dute, hain zuzen, produkzio-planak betetzen direla.
- Bestetik, **QR kode-sistema ere badugu produkzioan, balbulen guztizko trazabilitatea denbora errealean berma dadin**. Horrenbestez, balbula bakoitzari buruzko informazio guztia kode horien bidez gordetzen da sisteman (egiten zaizkien askotariko probak, balbula bakoitzaren osagai eta materialei

buruzko informazioa, produkzio-prozesuaren trazabilitatea, eta abar). Horrela, produktu bakoitzak bere historia propioa izan dezake, eta hura pertsona guztien eskuan jar daiteke, klik bakar batean.

Hala ere, zerbitzua ez da amaitzen bezeroari balbulak entregatzearekin; izan ere, balbulak entregatzerakoan, instalaziorako, martxan jartzeko eta abarretarako aholkularitza ematen dugu, **ad-hoc zerbitzuak** emateaz gain —adibidez, mantentze-lan zerbitzuak, prestakuntza, osagaiak ordezkatzeko, eta abar—.

Gaur egun, gainera, **“Fast Track”** balbulak eta osagaiak ordezkatzeko zerbitzuak eskaintzen ditugu, presa handieneko egoerentarako.





KALITATEA

Gure bezeroei ahalik eta kalitate eta fidagarritasun handiena eskaintzea da gure helburua, eta, gainera, fluidoak manipulatzeko industriaren garapen teknologikoa gidatzea.

AMPOn kalitate ezin hobea bermatzen dugu, eta, horretarako, **bitarteko ikuskapenak eta azken ikuskapenak egiten dira gure ekoizpen-arlo guztietan, baita gure hornitzaileetan ere**. Ikuskapen horiek dagozkion txostenetan eta ziurtagirietan dokumentatzen dira, eta lantalde efiziente eta bereziki kualifikatu batek koordinatzen ditu zuzenean, betiere barneko zein kanpoko berme-prozeduren eta -arauen arabera. Fase guztiak —erosketa-agindua hartzen denetik proba ez-suntsitzaileak (NDT), mekanizazioa, muntaketa, probak, pintura eta enbalatzea egiten den arte—, **Kalitatea Bermatzeko Eskuliburuan zehaztutako araudiaren arabera egiten dira**.





AMPOn, gainera, **saiakuntzak egiteko instalaziorik modernoenak ditugu**, baita gure soluzioen fidagarritasuna bermatzeko kualifikazio handiko Barne Kalitate Kontroleko langileak ere. Hau egiten dugu:

- **Saiakuntza ez-suntsitzaileak**, hala nola X izpiak, likido sarkorrak, ultrasoinuak, partikula magnetikoen saiakuntzak, PMLak (Materialen Identifikazio Positiboak), ikusizko ikuskapenak, saiakuntza hidrostatoak, saiakuntza pneumatikoak, saiakuntza kriogenikoak edo behe-tenperaturakoak, emisio iheskorren probak, hutseko saiakuntzak, goi-tenperaturako probak, goi-presioko probak, PR2F probak, balbulen eta haren osagaien integritatea balidatzekoak, eta abar

- **Laborategiko saiakuntzak:** saiakuntza kimikoak, saiakuntza mekanikoak, inpaktu-testak, gogortasun-neurketak, ferrita-edukiko probak, analisi metalografikoa eta korrosio-probak.

Gure kudeaketa kalitate-arau zorrotzetan oinarritzen da erabat, horiek ahalbidetzen baitiote AMPORi bezeroen beharretara hobekien egokitzen den produktua garatzea. Gure soluzio guztiek FAT (Factory Acceptance Test) probak betetzen dituzte, baina AMPOn beti haratago goaz kalitatearen eta fidagarritasunaren eskakizunari dagokionez. Horrenbestez, muturreko probak egiten ari gara etengabe, gure soluzioen zerbitzu-baldintzetan oinarrituta.

Kalitate-sistema

Gure produkzio-prozesuak kalitatea bermatzeko sistema aplikatuta ezarri eta kontrolatzen dira. Prozesu horiek, 1991z geroztik, homologatuta daude ISO 9001, API espec Q1 eta 6D, SIL 3 eta NORSOK aravekin, eta merkatuko kanpo-erakunde garrantzitsuenek egiaztatu dituzte, hala nola Lloyd 's Register, Bureau Veritas (BV), Det Norske Veritas (DNV) eta American Bureau (ABS) erakundeek. Soluzioek, gainera, CE marka eta UKCA marka dituzte.



BERRIKUNTZA

AMPOn berrikuntzarekin konprometituta gaude, eta produktu, teknologia eta sistema berriak garatzen diharduen dizi-plina anitzeko eta kualifikazio handiko lantaldea dugu. Lantaldearen etengabeko prestakuntzak bermatzen digu industriaren abangoardian jarraitzea.

Gainera, gure fakturazioaren % 2 baino gehiago berrikuntzara bideratzen dugu, gaur egungo eta etorkizuneko erronketarako erantzunak aurkitzen jarraitzea begira.

Gure bezeroen ingeniari-taldeekin eta gai espezifikoetan adituak diren nazioarteko ikerketa-zentroekin elkarlanean, **gure bezeroen premiei erantzungo dieten balio teknologiko handiko soluzioen garapena bilatzen dugu etengabe.**



2024. urtea aurrerapen handiko urtea izan da hidrogenoaren eta karbono-atzipenaren sektorerako soluzio-balbula berrien garapenean, upstream- eta fintze-sektoreetarako produktuen garapen eta hobekuntza teknikoan, ISS integrazio-soluzioen garapenean eta abar.

AMPOren egungo ikerketa-arlo nagusiak lan-ildo hauetan bil daitezke:

1. KARBONO URRIKO ENERGIETARAKO BALBULAK.

AMPOn soluzio berrien bilaketan eta garapenean inplikaturik gaude, gizarteak deskarbonizaziorako beharrezkoa den trantsizio energetikoaren bidean aurrera egin dezan. Hori dela eta, gure balbuletan soluzio teknologiko berriak txertatu ditugu etengabe, **“zero emisioko” balbulak** lortzeko asmoz, eta, horretarako **trantsizio energetikorako balbula berriak garatu ditugu hidrogenoaren, karbono-atzipenaren, bioerregaien eta erregai sintetikoaren esparruetan**. Hidrogenoaren Europako Aliantzako eta Hidrogenoaren Euskal Korridoreko (BH2C) kide aktibo gara, eta, gainera, Energy Intelligence Center zentroaren sortzaileetako bat. Zentro hori 4.0 industriarako eta fabrikazio aurreraturako parke teknologiko batean kokatuta dago.



2. BALBULA ETA SEGURTASUN-SOLUZIO ADIMENDU-NAK.

Segurtasuna negoziatzen da guretzat, eta, horregatik, modu aktiboan lan egiten dugu alor horretako hobekuntzetan eta soluzio berrietan. Eskaintzen ditugun soluzioetako batzuk dira: **urruneko kontrol-prozesu berriak, ISS (Integrated Smart Solutions) soluzio berriak, mantentze prebentiborako ekipa berriak eta kontrol-sistema berriak**. Eta guztiek dituzte,

gainera, segurtasunaren arloko ziurtagiririk zorrotzenak, hala nola Exida ziurtagiriak eta SIL arauak.

AMPO POYAM VALVESentzat bere produktuen fidagarritasuna da lehentasuna, eta proiektu berrien garapen-prozesuei eta errendimenduari lotuta dago.



3. ZERBITZU GERO ETA ZORROTZAGOETARAKO SOLUZIOAK.

AMPO liderra da zerbitzu zorrotzenetarako balbulen garapenean, diseinuan eta fabrikazioan. Industria-prozesuak gero eta konplexuagoak eta zorrotzagoak direnez gero, industriaren abangoardian egon behar dugu beti, eta muturreko aplikazioetarako **balio teknologiko handiko soluzioak eskaini behar ditugu**. Horregatik, gure diseinuak egokitzen ditugu gure balbulen osagaien bizi-denbora hobetzeko; **soluzio teknologikoak eta gainazaleko tratamenduak garatzen ditugu, higadura goiztiarra eta osagaien**

arteko marruskadura minimizatzeko; proiektu bakoitzerako ad-hoc materialak eta estaldurak hautatzen ditugu; aplikazio-baldintzen arabera integrazio-elementuak hautatzen ditugu; eta abar.

AMPO POYAM VALVESen badakigu produkturik onenek soilik eragotz ditzaketela zerbitzu zorrotz baten korrosioa, abrasioa, eranspena eta higadura eta, horrela, haien balio-bizitza luzatu. Horrenbestez, fluidoan gaitasunen analisiak, estaldura tribologikoak eta prozesuen azterketak AMPOren berrikuntza-taldeak egiten dituen zereginetako batzuk baino ez dira.

Ingeniaritzako eta I+Gko diziplina anitzeko gure taldeak bere zerbitzuak eskaintzen dizkie bezeroei, ekipo eta prozesuetako problematika edo erronka espezifikoak aurre egin ahal izan diezaieten. Horretarako, izan daitezkeen huts egiteko moduak ebaluatzen ditu eta soluzio alternatiboak eskaini. **Nazioarteko ikerketa-zentroekin eta ospe handiko unibertsitateekin ere lan egiten dugu etengabe.**

2024an, **produktu-garapen eta ikerketako 14 lerro izan genituen zabalik, eta berrikuntzaren intentsitatea % 2koa izan zen.**



JASANGARRITASUNA

AMPOn klima-larrialdiaren aurkako borrokarekin konprometituta gaude, eta bat gatoz Europar Batasuna murgilduta dagoen trantsizio ekologikoaren eta deskarbonizazioaren prozesuarekin. Horregatik, **modu integralean ari gara prozesu hori egiten**. Batetik, produktuaren ikuspuntutik, gure bezeroei deskarbonizazio-prozesua erraztuko dieten soluzio teknikoak garatzearen bidetik. Eta, aldi berean, gure ekoizpen-jardueraren beraren deskarbonizazioan aurrera egitearen bidetik.



Deskarbonizaziorako soluzioak:

1. Karbono emisio urriko energiak.

AMPOn gizarteak deskarbonizaziorako beharrezkoa den **trantsizio energetikoan aurrera egin dezan soluzio berrien bilaketan eta garapenean inplikaturik gaude**. Hidrogenoaren Europako Aliantzako eta Hidrogenoaren Euskal Korridoreko (BH2C) kide aktibo gara, eta, gainera, Energy Intelligence Center zentroaren sortzaileetako bat.

Ondorioz, guztiz konprometituta gaude ekonomia deskarbonizatzea ahalbidetuko duten teknologien garapenearekin. Horretarako, **hidrogenoaren, karbono-atzipenaren, biofuelaren eta fuel sintetikoaren esparruetan fluidoak manipulatzeko balio teknologiko handiko soluzioak ditugu**.

2. Zero emisio atmosferiko

Gure lehenetsun nagusietako bat atmosferara egiten diren emisioak murrizten laguntzea denez gero, urte asko daramatzagu **“zero emisio” soluzioak** lortzeko soluzio teknologiko berriak garatzen. Horretarako, ekodiseinuko prozesuei jarraitu, eta ingurumen-inpaktu txikiko soluzioak bermatuta, garatzen ditugu gure produktuak.

Gainera, AMPOren produktu guztiak **ISO 14001** arauaren arabera fabrikatzen dira.



4. AMPOREN KONPROMISOAK

4.5. INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA



AMPOn, guztiz jabetzen gara ezinezkoa dela ingurunea errespetatzen ez duen produkzio-eredu bati lotzea eta, beraz, ezinbestekoa da garapen oro jasangarria izatea.



INGURUMEN-ARRISKUAK

Printzipio horren ildotik, AMPOk ingurumenarekin duen konpromisoa irmoa da, eta hori gauzatzeko tresna egokia du: **ISO 14001:2015 arauaren arabera ezarritako eta ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema** (azken berrikuntza, 2025-01-7). Sistema horrek indarrean dagoen legeria errespetatzea eta ingurumen-jarduna etengabe hobetzeko helburuetatik haratago joatea ahalbidetzen dio AMPOri. Sistema horrek, bestalde, ingurumen-politika bat ere badu, kudeaketa-eskuliburua. Eskuliburu horretan zehazten dira sistemaren funtzionamendu-printzipioak eta egin beharreko jarduerak azaltzen dituen prozedurak.

Urtero, AMPOren estrategia globalari buruzko gogoetaren barruan, ingurumen-arriskuen eta -aukeren azterketa egiten da kanpoko zein barneko faktoreetan oinarrituta; izatez, askotariko sarrera-elementuak ditu, eta hobekuntza-helburuak identifikatzeko balio du. Horiek identifikatu ondoren, ezarri beharreko helburuak lehenesten dira eta urteko plangintza egiten da. **2025ean, plangintza horrek 757.100 euroko aurrekontu-zuzkidura du.**

AMPOk helburu horien jarraipena egiten duen Batzorde bat du. Koordinazioak ere parte hartzen duen batzorde horretan ingurumen-arloko jardueraren jarraipena egiten da, eta beharrezko ekintzak koordinatu eta bultzatzen dira.

Hauek dira AMPOren jardueraren ondoriozko ingurumen-arrisku nagusiak: atmosferara egiten diren emisioak, isurketen arriskua, lurzorua kutsatzeko arriskua eta zarata-emisioak. **Horiei guztiei eusteko neurriak ezartzen dira**, hala nola partikula-iragazkiak, euste-materiala, kubetoak, lurzoruen iragazgaiztea, eta isilgailuak. Bitarteko horiek guztiak xehetasun handiagoz azalduko dira memoria honetako bidezko atalean.

Bestalde, AMPOk ingurumen-arriskuen azterketa egin du, eta azterketa horretatik ondorioztatzen da nahitaezko finantza-bermea eratzetik salbuetsita geratuko litzatekeela. Hala ere, AMPOk erantzukizun zibileko aseguru bat du, bere jardueraren esparruan ingurumenari eragin dakizkiokeen kalteak estaltzen dituen.



TRANSIZIO EKOLOGIKOA ETA DESKARBONIZAZIOA

Klimaren gaineko eraginak ere kezkatzen du AMPO, gizartearen parte garen aldetik. Hortaz, eta karbono-aztarna pixkanaka murrizteko helburuarekin, AMPO **bere jarduera deskarbonizatzeke plan batean (1+2 irismena) lan egiten ari da**, 3 lan-ildo nagusi ardatz hartuta:

- **Efizientzia energetikoa.**
- **Prozesuen elektrifikazioa, erregai fosilen (gas naturala eta gasolioa) erabilera murrizte aldera.**
- **Energia berriztagarriak.**

Aldi berean, 3. irismeneko zenbait alderdi lantzen ari dira, adibidez mugikortasun jasangarria.

Bestalde, diseinuko eta I+Gko taldeak produktuaren optimizazioari erreparatuta lan egiten ari dira, eta horrek ingurumen-hobekuntza dakar produktuaren bizi-ziklo osoan.

Energiaren erabilera jasangarria:

AMPO energiaren erabilera efizientearen garrantziaz jabetuta, energia aurreztearen aldeko apustua egiten du.

Gainera, energia-efizientziari garrantzia berezia ematen diogu gure proiektuetan, adibidez mekanizazio



planta handitzeko proiektuan. Hauek dira elementu adierazgarrienak:

- Fatxadan eta estalkian transluzidoak instalatzea, argi naturala albait gehien sartzen uzteko eta argiztapenerako energia elektrikoaren kontsumoa murrizteko.
- Led argiztapena jartzea.
- Kubieta berdea, fabrikaren inpaktu bisuala gutxitzeaz gain, pabilioietan isolamendu termiko hobe ahalbidetzen duena.
- Plaka fotovoltaikoak instalatzea.

Jasangarritasun-estrategia horien eta beste batzuen konbinazioari esker, AMPOk instalazio horren eraikuntza jasangarria aitortzen duen LEED GOLD ziurtagiria eskuratu du.

Filosofia horren ildotik, Dorretxe eraikina berotzeko truke geotermikoko instalazioa ere badago.

Gainera, AMPOk energia-auditoretzak egiten ditu aldian behin, eta, horiei esker, **Energia Efizientziarako Ekintza Plan** bat du, jarduteko bide nagusiak zehaztu daitezzen eta martxan jarri beharreko ekintzak lehenets daitezzen. Lan horretan laguntzen duten kontagailu partzialak ditugu, kontsumoen jarraipena egiteko eta gerta daitezkeen desbideratzeak aztertzeke. Hona hemen, laburbilduta, **kontsumoak**:

Kontsumo energetikoa	2024
Elektrizitatea Idiazabal (kwh)	15.440.719
Elektrizitatea India (kwh)	1.487.857
Elektrizitatea Arabia (kwh)	693.652
Gas naturala Idiazabal (kwh)	19.928.067
Gas naturala Arabia (kwh)	—
Gasolioa (L) Idiazabal	10.692
Gasolioa (L) India	10.355
Gasolioa (L) Arabia	—



KUTSADURA ATMOSFERIKOA

Industria-jardueren ingurumen-alderdi nagusietako bat atmosferara isuritako emisioak dira. Erabaki dugu AMPOren ingurumen-lehentasunetako bat dela emisio horiek al bait gehien murriztea, batik bat partikula solidoak. Hori dela eta, inbertsio handiak egin dira iragazketa-teknologietan, bereziki galdategian.

Horrenbestez, emisio-mugak bete ahal izan dira eta, are gehiago, **muga horiek baino askoz emisio txikiagoak izan dira**, batik bat gure jarduerako emisio garrantzitsuenetan: partikula solidoak. Horri esker, AMPOk atmosferara egiten dituen emisioak izugarri gutxitu dira. Horren erakusgarri, iaz partikulak iragazteko sistemek 716,66 tona partikula solido bildu zituzten. Partikula horiek hondakin solido gisa kudeatu zituen baimendutako kudeatzaile batek, eta, beraz, atmosferara isurtzea saihestu zen.

2018an, mekanizazioa Idiazabalgo Lantokiko pabilioi berrian bateratu zen, eta ebaketa-likidoko lurrunen xurgapen- eta iragazketa-sare berri bat instalatu zen. Egun, **AMPOk 32 partikula-iragazkiz eta olio-lurrunk iragazteko 10 ekipoz osatutako ekipamendu-multzoa du.**



URAREN ERABILERA JASANGARRIA

Ura behar bezala kudeatzea ezinbestekoa da AMPOren jarduerarako. Horregatik, ur-kontsumoak eta ur-isurketak ahalik eta gehien murrizte aldera, hiru ildo nagusitan lan egin dugu:

- **Isurketa-parametroen kontrola**, parametro guztiak baimendutako muga azpitik daude.
- **Isurketa kantitate osoa minimizatzea**. horretarako, azken urteotan, askotariko jardunak egin dira eta, horiei esker, ibaira guztira egindako isurketak nabarmen murriztu dira, hainbat instalaziotan ur-zirkuitu itxiak instalatzearekin (tratamendu termikoa, likido sarkorrak, bolak hoztea, eta abar). Horrek baliabide hori etengabe berrerabiltzea ahalbidetu du.

Gainera, AMPOk lurruntze-sistema du, eta, horri esker, ibairako isurketak are gehiago murriztu dira eta, gero, ur hori prozesurako berrerabili ahal izan da. Horregatik, jardun horiek eragin onuragarri bikoitza dute ingurumenean: ur-kontsumoa eta ibairako isurketak murrizten dituzte.

- **Kontsumoak monitorizatzea**; AMPOk harguneetako ura (ibaia eta putzuak) eta sareko ura kontsumitzen ditu. Kontsumoa minimizatze aldera, AMPOk ur-kontagailu partzialak ditu instalatuta, kontsumoen jarraipena egin ahal izan dadin eta gerta daitezkeen desbiderapenak azter daitezen.

Ur-kontsumoa	2024
Ur-kontsumoa Idiazabal (m ³)	18.653
Ur-kontsumoa India (m ³)	4.609
Ur-kontsumoa Arabia (m ³)	5.644



MATERIALEN ERABILERA JASANGARRIA, EKONOMIA ZIRKULARRA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA

AMPO, bere jardueran sortutako hondakinak minimizatzeko helburuarekin, prozesu eta produktu jasangarriagoak diseinatzearen alde egiten ari da, betiere piezak fabrikatzeko baliabideen erabilera optimizatzerara begira. Helburuetako bat da diseinatu eta fabrikatzen dituen piezen pisua txikitzea eta, horren bidetik, ingurumen-hobekuntza lortzea produktuaren bizi-ziklo osoan.

Saihestu ezin izan ziren hondakinak bereizi egiten dira eta, ahal dela, barne-balorizazioa lehenesten da, ekonomia zirkularren filosofiari lotuta eta, gero, kudeatzaile baimendu baten bidez, kanpo-balorizazioari helduta —esaterako, azken kasuan eta beste alternatibarik ez dagoenean soilik uztea hondakinak zabortegian—. 2024an jarduerak eragindako **hondakin arriskutsuen % 18 balorizatu dira, eta hondakin ez-arriskutsuen % 85.**

EKONOMIA ZIRKULARRA

→ Moldeaketa:

Ekonomia zirkularreko printzipioekin bat etorriz, AMPOk moldekatze-hareak berreskuratzeko lerro bat du galdaketa-instalazioan, bertan 20 tn/h-ko ahalmena duen hareak-berreskuragailu mekaniko bat, 3 tn/h-ko hareak-berreskuragailu termiko bat, eta 5 tn/h-ko kromita-harearen berreskuragailu bat ditu. Prozesuak hareak berriko ehuneko jakin bat sartzea eskatzen duen arren, ekipo horien bitartez, moldekatzean erabilitako harearen zati handi bat berreskuratzen da eta, horri esker, hareak hori prozesuan sar daiteke berriz, helburu hirukoitz batekin: materialen kontsumoa murriztea, hondakin kopuru txikiagoa sortzea, eta ondoriozko garraioak murriztea.

→ Fusioa:

Galdaketako produkzio-prozesuak aukera ematen du itzulkin kantitate handiak labeetarako lehengai gisa berrerabiltzeko, instalazioetatik atera beharrik gabe. 2024an, labeetan urtutako materialaren % 41,9 ekoizpen-prozesuan bertan sortutako hondakin metalikoen barne-balorizazioaren emaitza izan da (galdatze, ebakitze eta mekanizazio prozesuak), eta % 49,6 kanpo-balorizazioaren emaitza; erabilitako material berria % 8,5 besterik ez da.

→ Fusioa eta ebaketa:

AMPOk kalitateen arabera bereizten ditu fusioko (lingoteak, opilak) eta ebaketako (isurbideak) itzulkinak, horiek berrerabiltzera begira. 2024an, itzulkinetan 1.456,3 tn balorizatu ahal izan dira barnean, gure galdaketa-labeetan berriz galdatuta. Hartara, hondakin gutxiago sortu dira eta lehengai-kontsumoa eta horiei lotutako garraioak murriztu dira.





→ Mekanizazioa:

Bestetik, mekanizazio-instalazioan, AMPOk txirbila tratatzeko lerro bat du, gure mekanizazio-prozesuan hondakin gisa sortutako txirbila txikitu, garbitu eta briketatzea ahalbidetzen duena. Hori dela eta, 2024an, itzulkinetan 914,5 tn txirbil balorizatu ahal izan dira barnean, gure galdaketa-labeetan berriz galdatuta. Hartara, hondakin gutxiago sortu dira eta lehengai-kontsumoa eta horiei lotutako garraioak murriztu dira.



ZARATA

Zarata ere lehentasunezko ingurumen-alderdietako bat da AMPOrentzat, ingurune hurbilean izan dezakeen eraginagatik. Zarata minimizatze aldera, jardun-ildo nagusi hauek dituen ekintza-plan bat dugu:


- **Isilgailuak** xurgapen-tximinia nagusietan; gaur egun, AMPOk 12 isilgailu ditu instalatuta.
- Xurgapen-motor nagusietarako **isolamendu akustikoa**.
- **Zarata-iturburu jakin batzuen orientazioa aldatzea**.
- **Inbertsio berrietako erosketa-agirian, zaratari buruzko ingurumen-irizpideak sartzea**.

LURZORUAK

AMPOk produktu kimikoak, hondakinak, txatarrak eta abar biltegitratzeko diseinatutako instalazioak ditu eta, hartara, ingurumenean eraginik ez duen biltegitratze segurua bermatzen du. Horretarako, dagozkion biltegitratze estaliak, iragazgaizpenak, kubetoak, eta abar ditu.

BIODIBERTSITATEAREN BABESA

AMPOk 6.800 m²-ko kubieta berdea du mekanizazio-nabe berrian. Landare-estaldura horrek CO₂ xurgatzea, ingurumen-inpaktua murriztea eta abar ahalbidetzez gain, inguruneke biodibertsitatea babesten ere laguntzen du.



4. AMPOREN KONPROMISOAK



4.6. INGURUNEAREKIKO ETA GURE LAGUNTZAILEEKIKO KONPROMISOA

Bidezko giza garapen jasangarria ahalbideratzea. Hori da AMPOk, bere jarduerak egiten dituen tokian, gizartearekin duen konpromiso nagusia, eta hala adierazten du zehazki bere eginkizunean.



GURE KOMUNITATEAREKIKO KONPROMISOA

Era horretan, modu aktiboan laguntzen du lan egiten duen komunitateen gizarte- eta ekonomia-sistema hobetzen, horietako kide aktiboa baita.

Bere ekimenek hezkuntzarako irisgarritasuna zabaltzen dute, pertsonen ongizateari laguntzen diote, ingurumena, kultura eta kirola zaintzea sustatzen dute, ekonomia soziala eta kooperatibismoa bultzatzen dute, garapenerako lankidetzak-ekimenak babesten dituzte, eta abar. Eta hori guztia berdintasunaren aldeko oinarriak bidelagun izanik.

Ondorioz eta gizartearen beharrezan bilakaerarekin bat etorruta, kooperatibak baliabide ekonomikoen zati bat eta gure pertsonen dedikazioaren zati handi bat bideratzen du urtero, kokatzen garen ingurunearen eta gizartearen hobekuntza sozioekonomikoan laguntzeko.



2024an, 157 ekimen bultzatu dira guztira, eta horietara 701.000 euro bideratu ditugu gutxi gorabehera.

→ Kultura-ekimenak eta -jarduerak:

AMPOk ingurune hurbilenaren kultura eta tradiziozko jarduerak eta ekimenak babestu eta sustatzen ditu, eta horien artean havekin egindako kolaborazioak nabarmentzen dira:

- Tokiko eta eskualdeko kultura-elkarte eta -zentroak
- Dantza-taldeak
- Musika eta kantuko askotariko diziplinak sustatzen dituzten eskolak eta taldeak
- Bertsolari-elkarteak
- Euskal mitologia sustatzen duten elkarteak
- Tokiko eta eskualdeko aldizkariak
- Elikadura ekologikoa sustatzen duten elkarteak

- Idiazabal gazta eta eskualdeko beste elikagai batzuk sustatzen dituzten elkarteak
- Kultura-dibertsitatea sustatzen duten elkarteak
- Arteak sustatzen dute elkarteak
- Askotariko tokiko ekimenak dinamizatzen dituzten taldeak
- Eta abar. c.

AMPOren helburua da, gainera, euskararen erabilera areagotzea eta hura normalizatzea; horretarako, arlo horretako ekimenak eta elkarteak babesten ditu, adibidez:

- Lanbide-heziketa sustatu eta hobetzeko elkarteak, euskarazko material didaktikoak garatu, eta zenbait heziketa-ziklotan erabil daitezten.
- Eskualdeko eta tokiko aldizkari, hedabide eta irratietan argitaratzea.
- Eta abar.



→ Hezkuntza eta heziketa-ekimenak eta -jarduerak:

AMPOn, uste dugu heziketa dela pertsonen eta gizartearen aurrerabidean gehien eragiten duten faktoreetako bat, eta, horrenbestez, elkarlanean aritzen gara inguruneko ikastetxeekin eta bestelako erakundeekin. Ezagutzak emateaz gain, heziketak kultura eta balioak aberasten ditu, baita pertsona egiten gaituen guztia ere.

Hartara, 2024an eskualdeko ikastetxeei dohaintzak egiten jarraitu genuen.

Garrantzi handikoa da, gainera, AMPOk beti sustatu duela ikastetxe, unibertsitate eta teknologia-zentroen sorrera, adibidez, Goierri Eskola, LORTEK Teknologia Zentroa, eta abar.



→ Kirol-ekimenak eta -jarduerak:

AMPOk, gainera, ingurunean proiektu zabala duten kirol-taldeak babesten ditu, adibidez:

- **AMPO ORDIZIA RUGBY.** AMPOk AMPO ORDIZIA errugbi-taldea babesten du duela urte batzuetatik hona. Elkarteak 1973an sortu zen eta gazte kopuru handi batek izan du errugbian jokatzeko aukera. Gaur egun, talde bat du estatuko lehen kategorian, baina emakumezkoen zein gizonezkoen oinarriko taldeak ere baditu. AMPO ORDIZIAren balioak, gainera, kooperatibaren mamiaren isla peto-petotzat ditugu: talde-lana, ahalegina, saiakuntza, inplikazioa, eta abar.



- **GOIERRIKO OINARRIKO TXIRRINDULARITZA TALDEA.** AMPOk, gainera, Goierri eskualdeko oinarriko txirrindulari-taldea babesten du eta, era horretan, txirrindularitza sustatzen du zenbait mailatan. Bestek beste, eskola-txirrindularitza, eta kadete- zein gazte-kategoriak sustatzen ditu. Talde horren bitartez, haraneko txirrindulariei bizikletaz gozatzeko aukera ematen zaie eta, gainera, profesional-kategoriara jauzi egiteko beharrezkoa den prestakuntza jasotzen dute.

Gainera, tokiko beste kirol-komunitate batzuei laguntzen diegu, hala nola:

- Futbol, saskibaloia, eskubaloia, atletismo, herri-kirol, boxing, tenis, igeriketa eta abarreko taldeak.
- Mendi-elkarteak.
- Txirrindularitza-klasikoak eta -probak, baita zikloturista-martxak ere.
- Pilota- eta pala-elkarteak.
- Eta abar.





→ Gizarte-arloko ekimenak eta jarduerak:

AMPOk, 2024an, elkarlanean jarraitu zuen irabazi asmorik gabeko askotariko elkarteekin, adibidez:

- NAGUSILAN, zahartze aktiboa bultzatzen duen elkarte. Nagusilanez gain, gure ingurunean askotariko jubilatuek eta nagusien elkarteekin zuzenean lan egiten dugu.
- Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarte.
- EITB maratona, minbizari zuzendua.
- Eta abar.

Horrez gain, 2024an, AMPO Indiak gizarte-garapenarekiko konpromisoa indartzen jarraitu zuen, hainbat ekimenen bidez. Proiektu nabarmenen artean herritarren segurtasuna hobetzeko proiektua dago. Era berean, Moperipalayam herrixkan baliabide urri zituzten 16 familientzako komun indibidualak eraikitzea bultzatu zen, oinarritzko higie-ne baldintzak hobetzen laguntze aldera. Osasunaren arloan, minbiziari buruzko sentsibilizazio-jardunaldi bat antolatu zen Chennain, eta

hiri bereko Gaixotasun Hematologikoen Zentroaren instalazioak hobetu ziren; ekipamendu medikoa, klimatizazio-sistemak eta baliabide informatikoak eman zitzaizkien, paziente onkologikoen arre-ta optimiza dadin.

GURE HORNITZAILEEKIKO KONPROMISOA

AMPOn, jabetzen gara gure proiektuaren jasagarritasuna ez dagoela soilik gure jardunaren mende, gure balio-kate osoaren mende baizik. Ondorioz, ezinbestekotzat jotzen dugu gure hornitzaile eta kolaboratzaileekiko harremana. Oinarri hori abiapuntu izanik, epe luzeko harremanak sustatzen ditugu gure lehiarako posizioa hobetzen lagunduko diguten

produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten kolaboratzaileekin, guztiok ere garapena eta hazkundea lor ditzagun. Horretarako, denboran iraunkorrak diren konfiantzazko erlazioak sustatzen ditugu.

Gure hornikuntza-kateko kudeaketa-politikaren oinarritzko beste helburu bat **bertako enpresa-sareari eutsi eta babesten laguntzea da, eta gure ingurunean balioa sortzea**. Politika horretan oinarrituta, 2024an, **100 kilometroko erradioan, 77 milioi euro erosi genituen gutxi gorabehera**. Nabarmendu behar da, gainera, garapen- eta berrikuntza-proiektuetan, baita salmenta-osteko zerbitzuetarako soluzioetan ere, beti bertako hornitzaileen eskutik lan egiten dugula, kalitate onena eta zerbitzu bikaina bermatzen baitigute.

AMPOk 1.000 hornitzaile homologatu baino gehiago ditu gaur egun. Hornitzaileen homologazio-prozesuek jokaera etikoak sustatzen dituen eta gure estrategiarekin lerrotatzen den lan-eredua babesten dute. Lan eredu-horrek, finantza-, funtzionamendu- eta lege-arrikuak murriztuko ditu, zerbitzu maila gorenak bermatuko ditu, eta kontratatzen diren zerbitzuen eta materialen kostua optimizatuko du.

Horrez gain, gure hornitzaileen integrazio-rik handiena bilatzen dugu; izan ere, etengabeko lankidetzak haien prozesuak hobetzen laguntzen digu, eta gure proiektuaren balio erantsia areagotzen. Horretarako, zenbait integrazio maila eskaintzen dizkiegu gure hornitzaileei. Horietako 35ek baino gehiagok integrazio maila gorena dute, eta gure produkzioaren plangintzan parte hartzen dutegina minimizatuta.





Azkenik, konpainiak eroste-politika, gizarte-gaietarako politika, genero-berdintasuneko politika eta ingurumen-politika ditu. Ez dago hornitzaileek sinatutako dokumenturik, baina sentikorrak eta arduratsuak gara lan egiten dugun hornitzaileekin. Hornitzaile guztiak behartzen ditugu indarrean dituzten legeriak betetzera, eta nazioartean onartutako eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean jasotako giza eskubideak errespetatzera, baita lanaren nazioarteko erakundearen oinarritzko hitzarmenak errespetatzera eta jokabide etikoa izatera, ingurumenaren gaineko eragina minimizatuta.



UNIBERTSITATEEKIKO LANKIDETZA

Gure kooperatiba inguruneko zenbait unibertsitateekin ari da lankidetzan (adibidez, MONDRAGON UNIBERTSITATEA, TECNUN, DEUSTU eta EHU), politika eta ekimen hauen bitartez:

- **Askotariko unibertsitate-espezialitateetarako ikasketa-amaierako praktikak**, heziketa duala eta proiektuak eskaintzen ditugu. Bereziiki gizarte-arloko planteamendu bati lotuz, ALECOPEk enprekin benetako harremana izatea errazten die ikasleei eta, aldi berean, trebakuntza egokia duten pertsonak eskuratzeko aukera ematen digute.
- **Enplegu Topaguneetan parte hartzen dugu**, eta ikasleei trebatzen eta lan-merkaturatzen laguntzen diegu.
- **AMPOrako bisitak** eta konferentziak antolatzen ditugu, ikasleek bertatik bertara ezagut dezaten industriaren errealitatea.
- **Unibertsitateetako ingeniaritza-sailekin elkarlanean, berrikuntza- eta ingeniaritza-proiektuak garatzen ditugu.** Hori da MONDRAGON UNIBERTSITATEaren Goierriko campusaren kasua. Haiekin elkarlanean jarduten dugu zenbait proiektutan: materialak, karakterizazioak eta diseinuen optimizazioa, produktu berritzaileen garapena, eta abar. Proiektu horietan, zuzenean parte hartzen dute hala unibertsitate-ikasketetako

azken urteko ikasleek nola askotariko gaietan eskarmentua duten irakasleek. Esperientzia horiek bi onura dituzte: batetik, campuseko ikasleek aukera paregabea dute zuzenean eskualdeko enpresen premiei erantzungo dieten ikerketa-proiektuetan parte hartzeko eta, bestetik, enpresek gai zehatzetan trebatzen diren gazte ingeniariak dituzte, era horretan eskualdeko industria-sarerako harrobia elikatuta.





TEKNOLOGIA-ZENTRO, START-UP ETA PARTZUERGOKIKO LANKIDETZA

AMPOk etengabe dihardu lankidetzan itzal handiko tokiko zein nazioarteko teknologia-zentroekin, eta haiek gure ezagutzen osagarria dira. Adibidez, BRTA (Basque Research and Technology Alliance), I+Grako Euskal Autonomia Erkidegoko aliantza.



2024an, nabarmendu behar da kooperatibak, berrikuntzako beste proiektu batzuen artean, I+G proiektu propioak garatzen jarraitu zuela, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko hainbat teknologia-zentorekin batera, konpainiaren espezializazio- eta dibertsifikazio-estrategiak babestu eta sendotzera begira. Hauek dira I+G proiektu propio horiek:

1) HIDROGENO BERRIZTAGARRIA BILTEGIRATZEKO BALBULEN SOLUZIO EFIZIENTEAK (H2eSVS).

Proiektu horren bidez, AMPOk hidrogeno berriztagarriaren biltegiratzean bereizi nahi du, hidrogenoa likidotzeko eta hidrogenoa goi-presioan konprimatzeko aplikazioetarako kontrol- eta estankotasun-soluzioen bitartez. Planteatutako proiektuaren helburu orokorra bi produktu-lerro garatzea da: LH2rako globo-kontrolako balbulak eta GH2rako 1.000 bar-eko boladun balbulak.

2) ABIAZIO JASANGARRIRAKO HIDROGENO BERRIZTAGARRIA BILTEGIRATZEKO UNITATEETARAKO EGINDAKO KONTROL-BALBULEN SOLUZIO INTEGRALAK (FIHy-SAiVS).

Proiektu horren bidez, AMPOk jauzi diferentziala egin nahi du ikuspuntu teknologikotik, hidrogeno bidezko mugikortasunaren arloko beharrei erantzuteko, zehazki aeronautikaren sektorean. Sortze fasean, hidrogenoa likidotzeko balbulen ohiko erronkez gain, sektore horretarako balbulak garatzeak erronka gehigarriei erantzutea eskatzen du, hala nola balbulak okupatzen duen espazioari (tamainak murriztea vs. efizientzia

termikoa), pisuari (arintzea), erresistentziari, segurtasunari, mikroemariak kontrolatzeko baldintzei edo jarduketa-sistemekin lotzen diren mugei. FIHy-SAiVS proiektua arlo industrialean eskalagarriak diren bi soluzio integral garatzean datza: kontrol-balbula konpaktu angeludunak, efizientzia termikoa dutenak eta arinak direnak, bereizgarriak, teknologia elektriko bidezko jarduketa integratua dutenak, eta teknologia mikrohidrauliko bidezko eta teknologia elektrohidrauliko bidezko jarduketa integratua dutenak.

Eta, amaitzeko, aditu gisa parte hartzen dugu lehen mailako hainbat proiektutako aholkularitza-batzordeetan, inguruko enpresa eta zentro teknologikoekin elkarlanean. Horien artean, hauek nabarmentzen dira:

- **EDISON proiektua, FABRIKAZIO GEHIGARRIKO TEKNOLOGIA JASANGARRIAGOAK, DIGITALAGOAK ETA ADIMENDUNAGOAK INDUSTRIA EFIZIENTERAKO.**

Proiektu horretan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zenbait eragilek parte hartzen dute. Balio-katean zeharreko hainbat prozesu ikertu, garatu eta optimizatuko dira, betiere Fabrikazio Gehigarri Metalikoko Teknologia Digital eta Adimentsuagoetan oinarrituta, betiere industria jasangarriagoa eraldatu eta sortzeko eta etorkizunean industrian ezartzeko azken helburuarekin. Material berrietarako teknologiak, propietateak, fabrikazioaren jasangarritasuna, simulazio-eredu prediktiboak eta prozesua monitorizatzeko sistema hartuko dira aintzat.



ZENBAIT ELKARTEETAKO KIDE AKTIBOAK

AMPOk modu aktiboan parte hartzen du elkarte hauetan —horien helburuak ere zehaztuko dira—:

- **"GERUZA ANITZEKO METALEZKO EGITURA HIBRIDOAK HIDROGENOAREKIN KONTAKTUAN ERABILTZEKO** (energia garbiagoetarako material aurreratuak eta funtzionalak) – H2MAT" proiektua. Proposamen hau jauzi kualitatiboa da hidrogenoaren industrian erabiltzeko materialen garapenean, eta lehiarako abantaila sortzen du Euskal Autonomia Erkidegoan. Proiektuaren planteamendua bat dator AMPOren estrategiarekin, hidrogenoaren eta haren eratorrien teknologien arloko posizionamenduari dagokionez.
- **"ONTZHI:** hidrogenoa biltegitratzeko eta garraiatzeko funtsezko teknologiak" proiektua. Proiektu honen helburua da hidrogenoak eragindako materialen degradazio-efektuak saihesteko teknologia berriak aztertzea, eta hidrogeno-tankeak fabrikatzeko material jasagarri berriak eta prozesu efizienteagoak ikertzea. Proiektu hori interes handikoa da AMPOk hidrogenoaren eremuan garatzen dituen jardueren arloan, bai ekipo kritikoetarako ingeniari-ta-soluzio integraletan oinarritutako gure jarduerarekin duen loturagatik, bai hidrogeno berdearen arloko beste proiektu batzuetan parte-hartzeagatik. OntzHi proiektuaren emaitzek lagunduko dute hidrogenoa biltegitratzeko eta garraiatzeko teknologiak garatzen, teknologia trinkoak, errentagarriak eta jasagarriak garatzen.

- **GOIERRI VALLEY:** Hasiera batean, 2017ko ekainean, Goierriko 33 enpresak eratutako aliantza da. Aliantzaren eginkizuna da Goierriko industria-eraldaketaren motorra izatea, enpresa kideen lankidetzak aktiboaren bitartez. Horretarako, ezagutza partekatu dute eta berrikuntzan jardun dute, ingurunearen etorkizunerako industria-lehia eta jasagarritasuna bermatu dadin. Aliantzak eskualdeko enpresa nagusiak (CAF, Irizar, AMPO, Indar, Orkli, Jaso, GH...) eta enpresa txiki eta ertainak biltzen ditu —azken horiek, gehienez, aurrekoen hornitzaileak dira—.

- **GOILAN:** Goilanez eskualdeko kooperatiben hazkundea sustatzen du, eta hori da, hain zuzen, bere helburu nagusia. Alegia, eskualdearen kooperatibismoa garatzea bilatzen du, giza eta gizarte-heziketa eta -prestakuntza eta prestakuntza teknologikoa sustatuta eta arian-arian eraldaketa sozioekonomikoa sortuko duten jarduerak bultzatuta.
- **GOIERRI FUNDAZIOA** Sozietatearen helburua da Goierriren prestakuntza eta garapen tekniko, ekonomiko eta soziala.





ERAKUNDE PUBLIKOEKIKO HARREMANA

- **FLUIDEX:** Isurkinak Manipulatzeko Ekipamenduen Esportatzaileen Espainiako Elkartea da, irabazi asmorik gabeko elkartea eta, sorreratik, nazioarterako joera handia izan duena. Elkartek ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-estrategien garapena sustatzen duten programak eta lantaldeak koordinatzen jarraitzen du, merkatuetan posizio hobea lortze aldera.
- **FUNDIGEX:** Espainiako Galdaketako Esportatzaileen Elkartea da. Irabazi asmorik gabeko elkarte horren helburu nagusia da galdaketaren sektoreko enpresen esportazioa eta nazioartekotzea sustatzea.

AMPOn, sinesten dugu gizarteak eta enpresa-erakundeek aurrera egiteko, ezinbestekoa dela etengabeko lankidetzak publiko-pribatua eta, horregatik, erakunde-harreman sendoak ditugu eragile publikoekin, adibidez, Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Idiazabalgo Udalarekin, Goieki Goierri Eskualdeko Garapen Agentziarekin, eta abar.

Urtero, Eusko Jaurlaritzak zein Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako askotariko proiektu eta dinamiketan parte hartzen dugu, elkartzen gaituzten helburu komunak baititugu. Adibidez, trantsizio energetikoaren ondoriozko erregai eta garapen berrietara bideratutako ekosistema ekologiko-industrialak garatzeko helburua. Ildo horretatik, Abanto-Zierbenako EIC (Energy Intelligence Center)

eraikin berriaren sortzaileetako bat gara, Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta beste erakunde batzuekin batera.

Eskualdearen barruan, harreman estua dugu GOIEKI Goierriko Garapen Agentziarekin. Eskualdea osatzen duten 18 udalek eratutako agentzia horrekin elkarlanean jarduten dugu industria- eta gizarte-arloko hainbat proiektutan. Goierri Valley eskualdeko aliantzarekin ere harreman estua dugu. Haren misioa da Goierriko industria-eraldaketaren motorra izatea, enpresa kideen lankidetzak aktiboaren bitartez. Horretarako, ezagutza partekatu dute eta berrikuntzan jardun dute, ingurunearen etorkizunerako industria-lehia eta jasangarritasuna bermatu dadin.



5. 2024. URTEKO HITOAK

BEZEROAK ETA PROIEKTUAK

AUSTRALIAKO PLUTO LNG-REN BIGARREN TRENERAKO TAMAINA HANDIKO ETA BALIO TEKNOLOGIKO HANDIKO BALBULAK:

AMPO POYAM VALVEsek bola, konporta, globo, erretentzio eta axial erretentzio motako 1.500 balbula kriogeniko eta ez-kriogeniko inguru diseinatu eta hornitu zituen Pluto LNGren 2. trenerako; horien artean, **tamaina handiko zenbait balbula nabarmentzen dira, 38" eta 2500 lb-rainokoak**. Proiektu hori Pluto LNG plantan gas natural likidotuko tren bat eraikitzean datza. Instalazio hau Karratha inguruan dago, Mendebaldeko Australian, eta Woodside da operadorea, Australiako gas naturalaren ekoizle nagusia. Tren berri horrek Scarborough-eko gasa prozesatuko du eta urtean 5 milioi tona gas natural likidotu ekoizteko gaitasuna izango du. Bechtel izan zen proiektu handi hori garatzeko hautatutako ingeniaritza, eta Woodside-rekin batera, AMPO POYAM VALVEsengan konfiantza jarri zuen, balio teknologiko handiko balbulak diseinatu eta ekoiztu ditzan.



PORT ARTHUR LNG TERMINALERAKO BALIO TEKNOLOGIKO HANDIKO BALBULA KRIOGENIKO ETA EZ-KRIOGENIKOEN KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA:

AMPO POYAM VALVES enpresari adjudikatu zitzaion Port Arthur LNG proiektua, gas naturala likidotzeko eta esportatzeko terminal garrantzitsu horretarako balio teknologiko handiko balbula kriogenikoak eta ez-kriogenikoak diseinatu, fabrikatu eta hornitzeko. Jefferson konderrian kokatuta, Texasen, proiektuaren lehen fasean gas naturaleko bi likidotze-tren, gas natural likidotua biltegitratzeko bi tanke eta horiekin lotutako beste instalazio batzuk eraikitzea aurreikusten da —urtean gutxi gorabehera 13 milioi tonako edukiera

nominala (Mtpa) izango du—.Gaur egun eraikitzen ari den proiektuak 13 bilioi dolarreko inbertsioa du eta Ameriketako Estatu Batuetako gas naturalaren industriaren lidergoa indartuko du, eta energia-segurtasun globalean bazkide estrategiko gisa duen posizioa sendotu. Proiektu garrantzitsu horren parte den aldetik, AMPO POYAM VALVEsek, 2023, 2024 eta 2025ean, 15.000 balbula baino gehiago hornituko ditu gas natural likidotuko aplikazioetarako, barnean direla boladun **balbula kriogenikoak eta ez-kriogenikoak eta konporta-balbulak, globo-balbulak eta bi aplikazioetarako erretentzio-balbulak** ere. Balbula horiek diseinatzean, Port Arthur LNGren —Sempra Infrastructure eta ConocoPhillips artean joint-venture bat— 1. faseko zehaztapen zorrotzak betetzea hartu da aintzat.

ALEMANIAKO STADE LNG-RAKO BALBULA KRIOGENIKOAK:

AMPO POYAM VALVES hautatu dute 1.300 balbula

kriogeniko baino gehiago hornitzeko Hanseatic Energy Hub-ari, gaur egun Staden (Alemania) garatzen ari den gas natural likidotuko inportazioko terminal garrantzitsu baterako. **Funtsezko azpiegitura horrek Alemaniarako gas natural likidotuaren eta gas berriztagarrien hornidura fidagarria bermatuko du**, eta, aldi berean, hidrogenoaren merkatuaren hazkunderako prestatzen da. Hub-a etorkizunerako prestatutako sistema modular malgu batean oinarritzen da; energia jasangarriagoa helburu duen trantsiziorako diseinatuta dago, bere terminalarekin, portuarekin, industria-parkearekin eta lotutako azpiegiturekin, betiere bektore energetiko berdeak hidrogeno bihurtzeko pentsatuak —eraikuntza-blokeetan oinarritutako sistema energetikoen gisara—.

Hanseatic Energy Hub GmbH enpresa ari da proiektua garatzen, eta Espainiako Tecnicas Reunidas ingeniaritza-enpresa da EPC kontratista. AMPO POYAM VALVEsek 2025aren amaieran eta 2026an entregatuko ditu proiektu horretarako balbulak.

Emandako **balbula guztiak kriogenikoak izango dira**, baina diseinu desberdinekoak: 750 konporta, globo eta erretentzio balbula, 610 top entry boladun balbula eta 26 tximeleta-balbula.

ARGENTINAKO LA CALERA PROIEKTURAKO ASENTU METALIKODUN BOLADUN BALBULAK:

AMPO POYAM VALVEsek Argentinako La Calera proiekturako balio teknologiko handiko **asentu metalikoduneko 80 boladun balbula baino gehiago** diseinatu, fabrikatu eta entregatu zituen. Proiektu horretan, Argentinako Neuquen probintziako Vaca Muertako Pluspetrol enpresaren hobia CPF (Central Processing Facilities) bat eraiki zen. Instalazio berri horri esker, Pluspetrol enpresa liderra izango da goi-presioko gas-hobien jardunean eta hobi helduetatik petrolio



gordina erazteko jardunean; izatez, gas-ekoizpena bikoiztuko du, gutxi gorabehera 5 MMm³/d-tik 10 MMm³/d-ra, eta likidoen ekoizpena laukoiztuko du 1.000 m³/d-tik 4.800m³/d-ra.

Techint izan zen prozesamendu-instalazio zentral horiek garatzeko EPC kontratuaren adjudikazioduna, eta AMPO POYAM VALVESengan jarri zuen konfiantza **24" eta 600 lb-ra arteko asentu metalikoduneko boladun balbula forjatuak** diseinatu eta fabrikatzeko. Proiektu horretako trim osagai guztiak tungsteno karburoz estali ziren eta balbula-gorputzak NB (Electroless Nickel Plating) estalduraz, balbulak higaduraren eta korrosioaren aurka babeste aldera.

SAUDI ARABIAKO JAFURAH-ERAKO GOI-TENPERATURAKO 30"-KO METAL-METAL BOLADUN BALBULAK:

AMPO POYAM VALVES enpresari adjudikatu zitzaion Saudi Arabiako Jafurah-ko gas-hobiko sufre-instalazioen **goi-tenperaturako (752°F) aplikazioetarako 30"-ko asentu metalikoduneko bola-balbulak diseinatzeko eta hornitzeko kontratua**. Balbula horiek eginkizun kritikoa izango dute Jafurah-ko gas-eremuko zerbitzu- eta interkonexio-instalazioetan. Proiektu horrek eguneko 1.100 milioi oin kubikora (Bcfd) arte gas ez-konbentzional (shale) prozesatuko du, inguruko eremuetatik datorrena. Eremu horrek gas komertziala, etanoa, gas naturaleko likidoa eta kondentsatua sortuko ditu, eta urrats handia izango da Aramco-ren epe luzerako estrategiaren barruan: gas ez-konbentzionalaren ekoizpena 3 bcf-d-ra arte handitzea hurrengo hamarkadan.

Proiektuaren egutegi doitua dela eta, erantzun arina eta azkarra eman behar zitzaion proiektuari, eta kalitatea arriskuan jarri gabe entregatzeko epe zorrotzak betetzeko gure gaitasuna erabakigarria izan zen



proiektu hori guri adjudikatzeko. Jakina, soluzio pertsonalizatuen eta balio teknologiko handiko soluzioen hornikuntzan dugun esperientzia ere garrantzi handikoa izan zen. Bikaintasunarekin dugun konpromisoaren barruan, **AMPO SERVICEko gure teknikariek zerbitzuak egingo dituzte balbulak lantegian instalatzen eta martxan jartzen diren bitartean ere bai**, eta, hala, integrazio arina eta errendimendu ezin hobea bermatuko da hasiera-hasieratik. Hyundai Engineering exijentzia handiko proiektu honen EPC ingeniaritzak, Hyundai Engineering and Construction-ekin batera eta Aramco azken erabiltzailearekin elkarlanean, AMPO POYAM VALVESengan jarri du konfiantza, balio teknologiko handiko balbula horiek diseinatu eta fabrikatzeko. Horrela, zerbitzurik zorrotzenetarako balio teknologiko handiko soluzioetan munduko erreferentziatzako partner gisa dugun posizioa indartu da.

TOPSIDE PROIEKTU GARRANTZITSUA AUSTRALIAN, SUBSEA BOLADUN BALBULEN KONTRATU BATEN ADJUDIKAZIOAREKIN:

AMPO POYAM VALVES Australiako mendebaldeko kostaldeko **topside azpiegitura-proiektu** garrantzitsu batean laguntzen ari da, proiektu horretarako balio teknologiko handiko boladun balbulak diseinatzeko, fabrikatzeko eta hornitzeko. Upstream proiektu horren helburua da lehendik dagoen FLNG instalazio bati gas naturaleko hornidura handitzea, eta, horrela, gas natural likidotuko eskari global gero eta handiagoari erantzuten laguntzea. Proiektu berritzaile horren eraikuntza 2022an hasi zen eta gas ekoizpena 2027an hastea espero da.

AMPOk **balio teknologiko handiko 171 subsea boladun balbula** hornituko ditu proiektu desfaiatzaile horretarako (eskuz eta modu hidraulikoan eta ROV bidez eragindakoak). Balbula horiek 172 metro inguruko sakoneran dagoen subsea plataformaren urperatze- eta aireztatze-sisteman instalatuko dira. Itsas ingurune ko baldintza zorrotzenetan jarduteko diseinatuta, balbula horiei proba zorrotzak egin zaizkie subsea industriaren eta plataformen berariazko estandarrak betetzen dituztela bermatzeko. Hartara, zerbitzurik zorrotzenetan haien iraunkortasuna eta fidagarritasuna bermatu da. AMPOk subsea soluzioen garapenean duen esperientzia aitortua eta mundu mailan antzeko proiektuetan parte hartu izana funtsezko faktoreak izan dira bezeroak Idiazabalgo konpainiarengan konfiantza jartzeko erabakian.

INDIAKO NUMALIGARH REFINERY LIMITED (NRL) KONPAINIARENTZAKO BALIO TEKNOLOGIKO HANDIKO BALBULAK, KOKIZAZIO ATZERATUKO UNITATEA MODERNIZATZEKO:

AMPO POYAM VALVEsek fintze-sektoreko lidergoa indartzen jarraitzen du, balio teknologiko handiko balbulak hornitzen baititu Golaghat barrutian (Assam, India) kokatutako Numaligarh Refinery Limited (NRL) konpainiako kokizazio atzeratuko unitateko koke-danborraren egitura-paketetarako (CDSP). Proiektu hori NRLren asmo handiko hedapen-planaren parte da; izatez, plan horren bidez, fintze-ahalmena 3,0 MMTPAtik 9,0 MMTPAra handitzea du helburu. NRL, Indiako energia-industriako funtsezko eragilea, Oil India Ltd-ren filiala da, eta Indiako Gobernu ko Petrolio eta Gas

Naturalaren Ministerioaren jabetzakoa da. AMPO POYAM VALVEsek proiektu horretarako **4 bideko switch balbulak, ar motorizatuko balbulak, ring-type balbulak eta bola-balbulak diseinatu eta fabrikatu ko ditu**, 12" #900 lbs eta 24" #300 lbs arteko zerbitzu zorrotzetarako. Proiektua HAL Offshore Limited enpresak egikaritu ko du, hau da, CDSP paketerako EPC kontratua adjudikatu zitzaion ingeniari tzak, eta proiektuaren ingeniari tza eta kudeaketa Engineers India Ltd enpresak gainbegiratu ko ditu (EIL). Hornidura-proiektuak switch balbuletarako kontrol-panel integratuak ere barne hartzen ditu, eta horiei errendimendu integratu ko proba zorrotzak egingo zaizkie entregatu aurretik. Hornidura 2025. urtearen erdialdean osatzea espero da, eta AMPO SERVICEk modu aktiboan parte hartu ko du instalazio- eta abiarazte-prozesuetan.



ARABIA EMIRERRI BATUETAKO ADNOC-EN MERAM PROIEKTU ESTRATEGIKORAKO BALBULA KRIOGENIKOAK:

AMPO POYAM VALVES hautatu dute Maximizing Ethane Recovery and Monetization (MERAM) proiekturako balbula kriogenikoak hornitzeko. Proiektu hori ADNOCen ekimen estrategiko nagusietako bat da, eta proiektuaren helburua da gasetik ahalik eta etano gehien berreskuratzea eta haren balorizazioa ahalbidetzea. Proiektua, Técnicas Reunidas eta National Petroleum Construction Company (NPCC) enpresek osatutako joint ventureri adjudikatua, Arabiar Emirerri Batuetan egikarrituko da, eta instalazio nagusiak Abu Dhabiko Habshan 5 gasa prozesatzeko instalazioan egongo dira. 3.600 milioi dolarreko inbertsioarekin, MERAM funtsezko zutabea da ADNOCen epe luzerako estrategian, betiere etanoa berreskuratze prozesua hobetzeko eta herrialdeko industriaren hazkuntzean laguntzeko. Anbizio handiko proiektu horren barruan, **AMPOk guztira 116 balbula kriogeniko hornituko ditu 2025 eta 2026 bitartean**, horien artean daude 12" baino gehiagoko 68 balbula eta 12" baino gutxiagoko 48 balbula —horietako batzuk 24", 30" eta 36" arteko tamainakoak izango dira—.

ZERBITZU ZORROTZETARAKO ASENTU METALIKODUN ZERO IHESKO BOLA-BALBULAK, LLOYDS METALS AND ENERGY LIMITED ENPRESAREN BURDINAZKO SLURRYKO MINERAL-HODIRAKO, INDIAN:

AMPO POYAM VALVESEK **18" eta 1500 lb-erainoko asentu metalikoduneko 65 bola-balbula** diseinatu eta



fabrikatu ditu, 85 km luze den slurry-ko mineral-hodirako. Hodi horrek burdina-mineral kontzentratua garraiatuko du Surjagarh-eko meategitik Indiako Maharashtra-ko Gadchiroli barrutiko Konsari siderurgia-plantaraino. Proiektuaren barruan sartzen dira Surjagarh-eko ponpaketa-estazioa, slurry-ko ponpa eta biltegiak,

slurry-balbulak dituen slurry-hodia eta Konsari-ko terminalerako pulpa-tankeak. Lloyds Metals and Energy Limited (LMEL) enpresa ari da proiektua egikaritzen, hau da, Indiako burdin-meatzaritzaren, burdina-fabrikazioaren eta energia-sorkuntzaren arloko liderra. AMPO POYAM VALVESEK kontu handiz diseinatu eta fabrikatu ditu



bola-balbula horiek guztiak, itxitura metalikoa (slurry pipeline valves) duen zerbitzu zorrotzerako. Balbula horiek zero ihes berrmatuko dute aplikazio benetan zorrotzetan. Kontuan izan behar da burdina-mineralaren proiektuak zorrotzenetakoak direla errendimenduari dagokionez. Balbuletako batzuk, gainera, modu hidraulikoan eragingo dira.

ISS SISTEMA OSOA, ARCELOR MITTAL NIPPON STEEL INDIA ENPRESAKO BURDINA-KONTZENTRATUZKO LOHIAK GARRAIATZEKO PROIEKTURAKO:

AMPO POYAM VALVESeK Dabuna-Sagasahi burdina-kontzentratuzko lohiak garraiatzeko proiektuan lagundu du. Indian funtsezkoa den azpiegitura horretarako ISS (Integrated Smart Solutions) sistema diseinatu, fabrikatu eta hornitu du. **Sistema horrek 2 HPU (potentzia hidraulikoko unitateak) eta zerbitzu zorrotzetarako 65 bola-balbula ditu, modu hidraulikoan eta eskuz eragingo direnak**, eta kritikotasun handiko ekipamendutzat hartzen direnak. ISS sistema horiek eta balio teknologiko handiko balbulak Dabuna eta Sagasahiko burdina-mineralaren lohietarako hodiaren ponpaketa-estazioetan instalatuko dira.

Proiektu hori azken bezeroaren —ArcelorMittal Nippon Steel India Limited (AM/NS India)— eta Ausenco meatzaritzaren sektorean espezializatutako ingeniari-entrepresa garrantzitsuen arteko lankidetzaren parte da. AMPOn esperientziak, ibilbideak eta balio teknologiko handiko soluzioek berrmatu dute meatzaritza-sektorearen eskakizun handiko proiektu horren arrakasta.



SEVERE SERVICES VALVES AND AN INTEGRATED SYSTEM FOR AN IRON CONCENTRATE SLURRY PIPELINE PROJECT

AMPO POYAM VALVESeK hornitutako zerbitzu zorrotzeko bola-balbulak diseinu flotatzailekoak ziren, metal-metal itxierakoak eta 0 ihesekoak, 20" eta 600 lb-ko neurrirainokoak, bereziki diseinatuak burdina-mineraleko lohi-hodien eskakizun zorrotzak betetzeko. Metal-metal itxierako eta 0 iheseko AMPOn balbulak industrian nabarmentzen dira, oso aplikazio zorrotzetan oso ohikoa ez den soluzioa

eskaintzen baitute. AMPOn garapen- eta berrikuntza-taldeak funtsezko zeregina bete zuten balbulen zein HPUen diseinuan, errendimendu eta fidagarritasun optimoak ziurtatuta. Balbulak eta HPUak hornitzeaz gain, proiektuak barne hartzen du AMPOn teknikari espezialistek eta ingeniariak ISS sistemaren instalazioak gainbegiratzeko eta abian jartzeko zerbitzuak ere egitea.

AMPO SERVICE

AMPO SERVICE ZEEBRUGGE LNG-REN PLANTAN IZAN ZEN ETA ERAIKUNTZA-ETA ABIARAZTE-ZERBITZUAK ESKAINI ZITUEN URTEBETE BAINO GEHIAGOZ:

FLUXYS LNG Belgikako gas naturalaren operadoreak berriz ere konfiantza jarri zuen AMPO SERVICEren, Zeebrugge LNGren ahalmena handitzea helburu duen Z3 proiektua eraikitzeko eta martxan jartzeko. Horren ondorioz, **AMPO SERVICEko teknikariak Belgikan izan dira urtebetez, Fluxys LNGko teknikariei laguntzeko.** Helburua argia da, balbulen bizitza baliagarria zabaltzen laguntzea, eta, horretarako, Belgikako taldeari hodiak garbitzeko prozesuan laguntzea, balbulen barne-osagaiak mihizatzea eta instalazioa abiarazteko prozesuetan modu aktiboan parte hartzea.

AMPO POYAM VALVES enpresak balio teknologiko handiko 660 balbula kriogeniko inguru hornitu zituen 2022an eta 2023an, eta balbulak gas natural likidoturako itsasoko uretako lurruneztargailu berrietan instalatu dira eta kamioiak kargatzeko Zeebrugge LNGren estazioetan ere instalatzen ari dira. Proiektu horren bidez, Fluxys-ek estrategikoki handituko du planta horren birgasifikazio-ahalmena 6 mtpa izateraino, eta CO2 isuriak murriztuko ditu, gas natural likidotutako kamioiak kargatzeko kaiak handitzeaz eta automatizatzeaz gain.

AMPOk Fluxys-ekin duen lankidetzak luze horren ondorioz, **2006. urtetik 2.500 balbula kriogeniko baino gehiago instalatu dira Zeebrugge LNGren instalazioetan,** bai eraikuntza faseetan, bai egindako handitzeetan.



MANTENTZE-KONTRATUAREN BERRITZEA EMIRATES GLOBAL ALUMINIUM (EGA)REKIN:

AMPO SERVICEk arrakastaz berritu du mantentze-kontratua aluminio ekoizle nagusienetakoa den Emirates Global Aluminium (EGA)rekin. Kontratu berritze honek EGArekin konfiantza berresten du bai gure balbula-soluzio teknologikoetan, bai eta eskaintzen dugun salmenta osteko zerbitzuaren kalitatean. Era berean, gure bezeroen eraginkortasun operatiboarekiko epe luzerako konpromisoa berresten du.

AMPO SERVICE-EK HAZKUNDE NABARMENA IZAN DU BRASILGO MEATZARITZA SEKTOREAN:

AMPO SERVICEk hazkunde garrantzitsua izan du Brasilgo meatzaritza sektorean, eta herrialdeko eragile nagusietako batzuen hornitzaile erreferente gisa kokatu da. Aurrerapauso hau gure gaitasunari esker izan da: gertuko, arin eta ingurune zorrotzetara egokitutako zerbitzu tekniko eskaintzeko dugun ahalmenari, eta baita zerbitzu zorrotzetarako balbulak diseinatu eta fabrikatzeko dugun esperientziari esker ere.

AMPO SERVICEKO AGENTE ETA ORDEZKARI BERRIAK:

Gure bezeroengandik gero eta gertuago egoteko helburuarekin, AMPO SERVICE-ek bere nazioarteko presentzia handitu du, merkatu estrategikoetan agente eta ordezkari berriak txertatuz. Sare indartu honek zerbitzu pertsonalizatuagoa eskaintzea ahalbidetzen digu, gure bezeroen beharrak azkarrago identifikatzea eta munduko edozein lekutan erantzun eraginkorra bermatzea.

TOKIKO ZERBITZUA ESTATU BATUETAN:

AMPO SERVICEren tokiko zerbitzua Estatu Batuetan AMPO POYAM VALVESen egitura globalaren luzapen natural gisa sendotu da. Bateratze horri esker, erantzun tekniko azkarrago eta eraginkorragoa eskaini ahal dugu, geldialdi-denborak murriztuz eta Ipar Amerikako merkatuan instalatutako balbulen mantentze-lanak optimizatuz, betiere taldearen bikaintasuna eta espezializazio teknikoa galdu gabe.

GARAPENA ETA BERRIKUNTZA

AMPO POYAM VALVES HIDROGENO-APLIKAZIOETARAKO ETA KARBONOA ATZITZEKO APLIKAZIOETARAKO SOLUZIO BERRIAK GARATZEN ARI DA:

AMPO POYAM VALVES hidrogenoarekin eta karbono-atzipenarekin lotutako aplikazioetarako berriaz diseinatutako balbulen soluzio berrien garapena bultzatzen ari da, bi zutabe horiek funtsezkoak baitira industria jasangarriago baterako trantsizioan. Balio teknologiko handiko balbulen diseinuan duen

esperientzia sendoari esker, konpainia lan egiten ari da ingurune zorrotzetan ahalik eta segurtasun, efizientzia eta fidagarritasun handiena bermatuko duten teknologietan, industria-prozesuen deskarbonizazioa eta energia-iturri garbi berrien aurrerapena modu aktiboan bultzatuta.

ISS SOLUZIOAK:

AMPO POYAM VALVEsek bere ISS (Integrated Smart Solutions) soluzioen bidez indartzen jarraitzen du, balbula hutsak baino askoz gehiago eskainita. Neurria egindako soluzio adimendunak eta integratuak garatzen ditu, fidagarritasuna eta segurtasuna funtsezkoak diren industria-ingurune zorrotzenetarako pentsatuak. Soluzio

horietan uztartzen dira sistemen integraziotik eta balbulen eragingailuen kontroletik monitorizazio aurreraturaino. Adibidez, SIL 2 ESD sistema sinpleetatik SIL 3 HIPPS sistema konplexuetara eta balbula arrak eta switchak kontrolatzeko sistema osoetara, fintze-industriako zerbitzu zorrotzen arloan. Espezializazio handiko ingeniari-taldearekin, AMPOk erabiltzeko prest dauden funtsezko sistema modulagarri eta independenteak diseinatzeko dituzte. Sistema horien artean sar daitezke balbulak, eragingailuak, tresneria, ponpak, konpresoreak, hodiak, instalazio elektrikoak eta ekipo osagarria, bezerearen instalazioetan entregatu eta instalatu daitezkeenak. Komunikazio-sistema ere integratu daiteke urruneko kontrola ahalbidetzeko eta balbulen eta sistema osagarrien jarraipena egiteko.





ZERO EMISIOKO DDV BALBULAK FABRIKATZEKO, BANATZEKO ETA ZERBITZATZEKO MUNDUKO ALIANTZA ESTRATEGIKOA:

2023. urtearen amaieran, AMPO POYAM VALVEsek urrats estrategiko argia egin zuen jasagarritasunarekin eta berrikuntzarekin duen konpromisoan. Izatez, Ameriketako Estatu Batuetako **Clarke Valve enpresarekin mundu mailan zero emisioko disko-balbula dilatatzailerak fabrikatzeko, banatzeko eta zerbitzatzeko lizentzia eskusiboa sinatu zuen**. Akordio hori urrian sinatu zen AMPOren Idiazabalgo egoitzan, eta aukera ematen du teknologia disruptiborako irisgarritasun globala areagotzeko. Teknologia disruptiboa diseinatu da industria-metanoaren ihes-isuriak minimizatzeke, eta nazioarteko ziurtagiriek abalatzen dute, hala nola

PED/CE, CRN, ISO 15848-A, SIL-3 eta NACE ziurtagiriek. Aliantza hori kontuan izanik, AMPO erreferente da ingurumena errespetatzen duten kontrol-balbula aurreratuen arloko soluzioetan, eta indartu egin da energia, kimika edo elektrizitatearen sorkuntza gisako funtsezko sektoreen deskarbonizazioan betetzen duen eginkizuna. Gainera, ohiko kontrol-balbuletarako alternatiba fidagarria eta errendimendu handikoa eskaintzen du. Balbula horrek —kontrolko globo-balbula konbentzionalak kontrolatzeko balbulen plug-and-play alternatiba— aplikazio errealetan duen eraginkortasuna erakutsi du, errendimendu, emisio eta kalitate estandar zorrotzenak bete baititu. Saudi Aramco Energy Ventures, Chevron Technology Ventures eta Climate Investment (munduko energia-enpresa nagusiek sortutako deskarbonizazioan espezializatua) gisako inbertitzaileekin egindako lankidetzak haren arrakasta babesten du.

UPSTREAM, MEATZARITZA ETA ZERBITZU ZORROTZETARAKO GARAPENEN ETENGABEKO HOBEKUNTZA:

2024an, AMPO POYAM VALVEsek upstream, meatzaritza eta zerbitzu zorrotzen aplikazioetarako soluzioen etengabeko hobekuntza sustatzen jarraitu du, eta bikaintasun teknikoarekin eta industriaren erronka zorrotzenetara egokitzearekin duen konpromisoa berretsi du. Bezeroekin duen lankidetzaren estuaren bidez eta berrikuntzan oinarritutako ikuspegiaren bidez, **konpainiak diseinatuak, materialak eta fabrikazio-prozesuak optimizatu ditu, presio, tenperatura edo korrosioaren muturreko baldintzetan jarduteko gai diren balbula sendoagoak, eraginkorragoak eta seguruagoak eskaintzera begira**. Aurrerapen horiek AMPOk sektore estrategikoetan funtsezko bazkide teknologiko gisa duen posizioa indartzen dute, eta sektore horien jardunaren jasagarritasunean eta fidagarritasunean laguntzen dute maila globalean.



EKITALDIAK

AMPOREN 60. URTEURRENA BEZEROEKIN:

2024ko urrian, AMPOk bere 60. urteurrena ospatu zuen Idiazabalgo egoitza nagusian egindako hiru eguneko ospakizun-ekitaldi batekin. Ekitaldi horretan mundu osoko bezero, laguntzaile eta bazkide estrategikoak bertaratu ziren. Jardunaldi horietan, produktu eta soluzioetako azken beritasunak aurkeztu ziren, besteak beste, ISS Integrated Smart Solutions (ISS) soluzioak, karbono urriko

energien estrategiak eta proiektuak, teknologia eta instalazio berriak, eta abar. Gainera, zenbait mahai-inguru tekniko eta komertzial antolatu ziren, industriaren etorkizuneko joera eta erronkei buruzko esperientziak, ezagutzak eta ikuspegiak parteka zitezten. Programaren barruan, fabrikazio-plantetarako bisita gidatuak, networkingerako guneak eta une kultural eta gastronomikoak antolatu ziren Euskal Herriko leku enblematikoetan, hala nola Donostian, eta Errioxan. Ekitaldi horretan, sei hamarkadako historia eta konpromisoa ospatzeaz gain, gure bezeroekiko lankidetzeta eta konfiantza indartu ziren, eta AMPO sektorea gidatzen jarraitzeko posizionatu zen, berrikuntza eta jasagarritasunaren bidez.

FAMILIENTZAKO ATE IREKIEN JARDUNALDIA:

AMPOk langileen familientzat ate irekien jardunaldi bat antolatu zuen urrian. Ekimen horri esker, lan-ingurunea hurbildu zitzairen langileen hurbilekoei, eta bertatik bertara erakutsi zitzairen enpresak berrikuntzarekin eta jasagarritasunarekin duen konpromisoa. Bisitan, familiek instalazioak ez ezik, fabrikazio-prozesuak eta aurrerapen teknologikoak ere ezagutu ahal izan zituzten. Jardunaldi horrek berresten du AMPOk gertuko eta familiako giroa sortzearen alde egiten duen apustua, pertsonen eta haien familiek proiektu kooperatiboaren funtsezko parte gisa betetzen duten zeregina baloratuta.





HIDROGENOAREN SEKTOREKO AZOKETAN PARTE HARTZEA:

2024an, AMPO POYAM VALVEsek hidrogenoaren arloan duen posizionamendua indartu du, nazioarteko erreferentziazko ekitaldietan modu aktiboan parte hartzearekin, hala nola EHEC (European Hydrogen Energy Conference) eta Hydrogen Technology Expo ekitaldietan. Azoka horiek aukera paregabea izan dira gure hydrogen-ready soluzioak aurkeztu, sektoreko funtsezko eragileekin sinergiak ezarri eta energia-trantsizioan berrikuntzak betetzen duen zereginari buruz dugun ikuspegia partekatzeko. Topaketa horietan parte hartzeak teknologia jasagarrien garapenarekin dugun konpromisoa agerian uzteaz gain, hidrogenoaren industria seguru, efiziente eta deskarbonizatuaren eraikuntzan laguntzeko dugun borondatea ere agerian utzi du.



REFCOMM GALVESTON ETA REFCOMM EUROPE AZOKAK:

2024an, AMPO POYAM VALVEsek fintze-prozesuan espezializatutako nazioarteko azoka nagusietan parte hartu zuen, hala nola RefComm Galveston (Ameriketako Estatu Batuak) eta RefComm Europe azoketan —kokizazio atzeratuaren, fluidoaren cracking katalitikoaren (FCK) eta sufreakaren berreskurapenaren sektorerako funtsezko bi azoka—.

Azoka horiek gune estrategikoak izan dira fluidoaren cracking katalitikoko, coker-eko eta fintze zorrotzeko

beste prozesu batzuetako unitateetarako zerbitzu zorrotzeko gure soluzioak partekatzeko, baita bezeroekin, ingeniartzeekin eta operadore globalekin harremanak sendotzeko ere. Topaketa horietan parte hartzeak fintze-instalazioen efizientziarako eta segurtasunerako teknologia kritikoaren etengabeko hobekuntzarekin dugun konpromisoa indartzen du, eta AMPO eskakizun tekniko handiko industria-inguruneetako konfiantzazko hornitzaile gisa sendotzen du.

IVS AZOKA:

AMPO POYAM VALVEsek lehen aldiz parte hartu du Bergamoko IVS azokan (Industrial Valve Summit), industria-balbulen eta fluidoak manipulatzeko teknologien sektoreko Europako topaketa garrantzitsuenetako batean. Foro hau plataforma bikaina izan zen gure azken berritasunak erakusteko eta balio erantsi handiko soluzioetan erreferente gisa dugun posizioa finkatzeko. AMPOk IVS azokan duen presentziak indartu egiten du berrikuntzarekin, ezagutza teknikoaren trukearekin eta energia- eta industria-sektoreko eragile nagusiekin modu aktiboan elkarlanean aritzeko dugun konpromisoa.

SAUDI MET:

AMPOk Saudi Arabiako Erresumako industria-azoka garrantzitsuenetako batean parte hartu zuen, SAUDI MET azokan hain zuzen. Horrela, Ekialde Ertaineko merkatuaren garapenarekin duen konpromisoa sendotu zuen. Parte-hartze horri esker, AMPO ARABIAREN tokiko ahalmenaren balioa nabarmendu ahal izan da. Al Khobar-en dagoen gure lantegiak hurbileko fabrikazioa, muntaketa, probak, zerbitzua eta laguntza teknikoa eskaintzen dizkie eskualdeko operadore nagusiei. SAUDI MET azokan izandako presentzia aktiboak tokiko industria-garapenaren aldeko apustua indartzen du, eta bat dator jasangarritasunaren eta eduki nazionalaren helburuekin (IKTVA). Beraz, Saudi Arabiako energia-industriarako bazkide estrategikoa eta hurbila izateko dugun borondatea berresten du.



ADIPEC:

AMPO POYAM VALVEsek merkatu globalean duen presentzia indartu du ADIPEC azokan (Abu Dhabi International Petroleum Exhibition & Conference) parte hartuta, energiaren sektoreko munduko ekitaldi garrantzitsuenetako batean. Azoka hori funtsezko plataforma izan da gure balio teknologiko handiko soluzioak aurkezteko eta bezeroekin, bazkideekin eta energia-industriako liderrekin loturak estutzeko.

API BILTZARRETAN PARTE-HARTZEA:

AMPOk 2024an Ameriketako Estatu Batuetan egindako API (American Petroleum Institute) konbentzioetan parte hartu zuen. Bilkura horien helburua izaten da API estandarrek garatzea eta industriaren intereseko gaiei buruzko networkinga eta eztabaida irekiak sustatzea.

API biltzar horietara bertaratzeko dira oil & gas sektoreari lotutako produktuek eta ekipamenduak fabrikatzen dituzten enpresetako ordezkariak, baita ingeniariak-konpainiak eta azken bezeroak ere. Ekipoen fabrikatzaileak zenbait lantaldean banatu ohi dira API estandarrez eztabaidatzeko, eta AMPOk modu aktiboan parte hartzen du "Balbulak eta hodiak" deituriko lantaldean. Horrenbestez, nabarmendu behar da AMPOk API arauen idazketan parte hartzen duela, eta erraz aplikatzen dituela bere balbulak garatzean.

SALMENTA-BILTZAR GLOBALEN OSPAKIZUNA:

AMPOk, gaur egun, ordezkari- eta agente-sare zabala du mundu osoan, eta mundu osoko 60 herrialdetan baino gehiagotan presente dago. Aribideko urtea aztertzeke helburuarekin, eta batez ere 2025. urterako estrategia komertziala diseinatzeko helburuarekin, azaroan salmenta-biltzar globalak egin ziren Idiazabalen.

URTEKO BATZARRAK:

Maiatzaren 24an egin zen kooperatibaren Ohiko Batzar Nagusia, Idiazabalen, eta, bertan, urteko kontuak aurkeztu eta onartu ziren.

Bestetik, abenduaren 20an, Ezohiko Batzar Nagusia egin zen. Batzar horretan, 2025. urterako Kudeaketa Plana aurkeztu eta onartu zen (kooperatiban, "Ideiak eta Helburuak" deitu ohi dena).



JUBILATUEN EGUNA:

Urriaren 3an ospatu zen, urtero bezala, AMPOk Erretiratuen Eguna. Egun hain berezi horren helburu nagusia da kooperatibako egungo bazkideen eta erretiratuen arteko harremanari bizirik eustea.

Guztira 100 erretiratu animatu ziren AMPORA etortzera eta beren egunaz disfrutatzen.

EUSKARAREN JAIALDIA:

Joan den apirilaren 19an, AMPOren Euskararen Jaialdia ospatu genuen, kooperatibaren 60. urteurreneko egitarauaren barruan. Ekitaldia AMPOko beterranoen eta gazteen arteko herri-kiroletako lehiaketa batekin hasi zen, eta, gero, lehiaketa gastronomikoa egin zen, sokatirarekin jarraituz. Afariaren ondoren, eta giro paregabea ospatu zen jaiari amaiera emate aldera, ZOPA antzezlanaz gozatzeko aukera izan genuen.





BESTE BATZUK

GIPUZKOAKO GANBERAK "2024ko GIPUZKOAKO ENPRESARIK ONENA" IZENDATU DU AMPO:

Apirilaren 19an AMPOk 2024ko Gipuzkoako enpresarik onenaren saria jaso zuen Mauricio Arregui Gipuzkoako Bazkondeko presidentearen eskutik. Balio teknologiko handiko sektore batean munduko liderra izatea, zerbitzaziora bideratutako negozio-eredua garatzeko egindako ahaleginak, trantsizio energetiko globalean eragile gisa izan dugun funtsezko posizioak eta ingurunearekiko eta pertsonetikiko dugun konpromisoa aintzat hartu ditu Gipuzkoako Merkataritza Ganberak 2024ko Gipuzkoako enpresarik onenaren saria ematean.

GRZ TECHNOLOGIES ENPRESAREKIN HITZARMENA, HIDROGENO BERDEA BILTEGIRATZEKO SOLUZIOAK EMATE ALDERA:

AMPOk, 2024an, GRZ TECHNOLOGIES hidrogeno berdean oinarritutako soluzioetan esperientzia handia duen fabrikatzailearekin lortutako lankidetzahitzarmenaren berri eman zuen. Aliantza horrekin, GRZ Technologies enpresak Espainian eta Portugalen integratzeko partner komertziala izango da AMPO. Haren abangoardiako teknologiak hidrogeno berriztagarria biltegiratu, konprimatu eta prozesatzeko aukera ematen du, eta sareko kokapen deszentralizatuetan energia biltegiratzeko eta sortzeko ere bai. Hidrogenoa biltegiratzeko soluzio horiek elektrolizagailu batetik lortzen dute hidrogeno berdea, input gisa, eta zenbait aplikazio ahalbidetzen dituzte. Hidrogenoa

eskariaren arabera energia elektriko baliotsu bihurtzeko, oso modu trinko eta seguruan behe-presioan biltegiratuta, eta hidrogenoaren mugikortasunean erabiltzeko edo garraiorako erabiltzeko konprima daiteke, baita CO₂ atzitzeko eta, hidrogenoarekin konbinatuta, konposatu sintetikoak eta metano berriztagarria fabrikatzeko ere. Hartara, teknologia horiek gasaren prozesamendu fidagarria, segurua, efizientea eta trinkoa ahalbidetzen dute. Bestela esanda, AMPOn elektrizitate- eta gas-sareko eremu deszentralizatuetan —energia berriztagarriak dauden tokian, hain zuzen— irauteko eta funtzionatzeko diseinatutako sistemak banatu eta integratuko ditugu. Produktuen artean daude: hidrogenotik sortutako energia elektrikoaren biltegiratzea MWh-tan, hidruro metalikoen biltegiratze-soluzioak —kiloetatik tonetara—, hidrogeno-konpresore termikoak eta e-metanorako metanizazio-soluzio modularrak, karbono eta hidrogenoaren atzipen bidez.





ENERGY INTELLIGENCE CENTER FUNDAZIOAREN INAUGURAZIOA:

Energy Intelligence Center (EIC) Fundazioko kide aktibogaren aldetik, AMPOk, 2024an, erakunde horren inaugurazio ofizialean parte hartu zuen, Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoan, Abanto-Zierbenan (Bizkaia). EIC Fundazioa I+G+Bko lankidetzaplataforma gisa sortu da, trantsizio energetikorako eta industriaren deskarbonizaziorako funtsezko teknologien berrikuntza gidatzeko eta Euskadi klima-aldaketaaren aurkako borrokan nazioarteko erreferente gisa kokatzeko. AMPOk, gaur egun, Energy

Advanced Engineering Fundazioaren presidentetza du eta EIC Fundazioaren patronatuko kide da, Euskal Autonomia Erkidegoko energiaren sektoreko beste eragile estrategiko batzuekin batera. Modu aktiboan lagunduko du proiektu teknologiko berrien garapenean, eta, horretarako, azpiegitura eta laborategi espezializatuak baliatuko ditu, soluzio berritzaileak eta jasangarriak bultzatze aldera. Lankidetzak horrek AMPOk jasangarritasunarekin, industria-garapenarekin eta lidergo teknologikoarekin duen konpromisoa indartzen du, eta etorkizuneko energia-erronkekin bat datorren industria-ekosistemaren bultzadan betetzen duen zeregina finkatzen du.

METAL 78 PROIEKTUA BULTZATZEA:

2024an, AMPOk METAL 78 proiektua bultzatzen jarraitu zuen beste inbertitzaile batzuekin batera. Proiektu hori, katalizatzaile eta iragazki industrialetatik abiatuta, metal preziatu kritikoen (paladioa, rodioa eta platinoa) birziklatze jasangarrira bideratutako spin off-a da. Lankidetzak horri esker, aurrera egin dezakegu dibertsifikazio-estrategian, eta teknologia hidrometalurgiko disruptiboa eta ekonomia zirkularra bultzatzea. Aurreikusten da enpresa, 2025erako, Arcelorrek Zumarragan zuen fabrika zaharrean ezartzea.



AMPO HEADQUARTERS · KATEA AUZOA Z/G · 20213 IDIAZABAL · GIPUZKOA-SPAIN

www.ampo.com · ampo@ampo.com